

tti pi-ttapa

251. zenbakia • 1999ko apirilak 8 • XIX. urtea

Inaxio Errandonea • Asier Olaizola

Bi txapeldun aurrez aurre

Bi pilotari, bi txapeldun eta bi estilo: Inaxio Errandonea klasikoa. Asier Olaizola modernoa. Heldua eta gaztea. Biek aurrez aurre jarri ditugu. Bikoteka jokatutako txapelketan garaile suertatu dira biak. Inaxiok Asegarceren Euskal Herriko txapela jantzi du Nagorerekin –laugarren txapel nagusia beretzat–, baina txapelak irabazteaz ez dela inoiz aspertzen dio. Asierrek, berriz, Asperen Espainiako txapela berega-

natu du, Elkoro atzean lagun zuela. Bere lehen zapel handia da eta pozaz txorutzen dago, noski. Elkarren kontra gustura jokatuko luketen Alkaiagaokoak eta Goizuetakoak, baina beraien enpresen aginduetara daude. Honela, eskuz banakako txapelketa ere bakoitzak bere aldetik jokatu beharko du. Errandoneak igande honetan jokatuko du lehendabiziko partidua eta Olaizolak bigarren mailakoa bukatzera esperatu beharko du. ➤ 28

4 Erreportaia: Larrakaizko tunelaren lanak zitzu bizian

Belate eta Almandozko tunelak akautu eta trafikoarentzat ireki zirenean, estreinatu zen errepide zati berriaren segidan, betiko bide zaharra zegoen. Pixkan-pixkan hasi dira Zozaiatik Irunera bitarteko zatia moldatzen. Momentuz, Larrakaizko tunela zulatzen ari dira Sunbillan.

6 Iritzia: Parkinson eritasuna

Gehien bat hirutan hogeitetik goitiko pertsonetan agertzen den eritasun honi buruzko iritzia eskatu diegu, mediku, gizarte langile eta eri baten senideari.

6 TTUPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



3 Elkarrizketa:

LAMIXINE BAT


Berako antzerki taldeak «Carcias» bere azken lanaren bigarren estreinaldia eginen du Berako Kultur Etxean hilaren 18an. Taldekideen ustez, «hagitz obra gordina den arren jendeari gustatu zaio gure antzeslana». Publikoak eskatuta errepikatuko dute emanaldia Beran eta, seguraski, Elizondon ere izanen dira eguntan.



ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA



- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 10 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hobereana



**IZAKIAK BETIDANIK
KIN DU SILOTITEREKIN
BILTZEA DELA
KONTSERBATZEKO
MODURIK
HOBERENA**



ARoz - BERRI, S.A.

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • Tel: 948581021 - 948580258 • Fax: 948452103 • 31730 IRURITA

BAZTAN

multiservicios

98ko ERRENTA

AITORPENA:

Zure errenta aitorpena esperientzia zabaleko profesionalen esku.

Galdeiguzu batere konpromisorik gabe eta probextu zaitez BAZTAN MULTISERVICIOSEK eskeintzen dizun asesoritzaz.

BERTZE

ZERBITZUAK

BEZ aitorpen-kitapena

Elkarte eta Aunomoen kontabilitatea

Kontabilitate liburu eta urteko kontuen legalizazioa

Elkarteen zerga

Autonomoak, langileen alta eta bajak, kontratuak, etab.

ETXEEN

SALEROSKETA:

TA:

Etxe eta lurren salerosketa eta alokairu zerbitzua

Eskaera haundiagatik etxe eta

Baztan Multiservicios - Zure enpresarendako aholku profesionalak

DATUAK.....

❖ Lamixine antzerki taldeak "Caricias" bere azken lanaren bigarren estreinaldia egingen du Berako Kultur Etxean hilaren 18an.

❖ Publikoak eskatu dielako errepikatuko dute Sergi Belbel-en obra hau, eta seguraski Elizondon ere emanaldi bat egingen dute egunotan.

❖ Argi utzi nahi dute Lamixineren antzerki tailerra «mundu guziari» irekia dagoela, adin eta sexu guziko pertsoneri, «eta bereziki gizonezkoeri, eskasia haundia baitugu».

❖ Norbait animatzen bada kontaktu telefono honetan ematen ahal du izena: 948 630 722 (Marian).

TESTUA ETA ARGAZKIA:
AISIER GOGORTZA

👉 **Lamixine BAT** Berako Antzerki Tailerra

"Hagitz obra gordina bada ere, jendeari gustatu zaio Caricias"

NOLA ETA ZERGATIK AU- KERATU ZENUTEN "CA- RICIAS" ANTZEZLANA?

Badirudi gehienak ados ginela testu idatzi bat aukeratzearekin. Hau izan zen gehien gustatu zitzaiguna, baina baita beldur gehien ematen ziguna ere. Izan ere, hizkera arrot gordina erabiltzen da, eta egoera batzuk ere ez dira sobera arruntak: ez da ohikoa felazio bat eszenan ikustea, adibidez.

Horregatik guretzat erronka bat zen obra hau. *Harriak botako dizkigute*, pentsatzen genuen hasieran. Ez genekien nola erreakzionatuko zuen publikoak. **ETA, HARRIAK BOTA DIZKIZUETE, EDO LOREAK?**

Orokorrean jendeari gustatu egin zaio. Gogor xamarra dela bai, baina maila hobetu dugula erran digute. Batez ere gazteriak hartu du ongi, guk espero genuen bezala, baina jende helduagoak ere erreakzio ona izan du antzezlaren aitzinean.

Dena den, badago bertzetik pentsatzen duen jendea ere. Batzuentzat gusto txarrekoa izan da, desatsegina.

Egia erran, guk beldur pixka bat bagenuen esterotipoengatik: felazioa, bertzearen usain txarreko alua... beldur ginen jendea horrekin bakarrik geldituko ote zen. Dena den, harritu



«Testu idatzi baten aurrean jarri garen lehen aldian izandu da».

egin gara, gustatu ez zaion jendeari ez baitiote pasarte konkretu batzuek min egin, gaiak berak baizik. Gaizki sentitu badira obrak zein bakarrik bizi garen adierazten duelako da.

Publikoak azkarra da, pentsakorra, ez da azalekoan gelditzen.

LAMIXINE BATENTZAT PAUSU GARRANTZITSUA IZANDU DA "CARICIAS" BEZALAKO OBRA BATE-

KIN AURREZ-AURRE JAR- TZEA, EZTA?

Testu idatzi baten aurrean jartzen ginen lehen aldian zen, lehenagoko obrak guk sortuak baitziren. Guk isladatu nahi genuena agertzen zen gure pertsonaietan, baina orain pertsonai ezezagun baten baitan sartu behar izan dugu.

Aktorea pertsonaia errefusatzera ere ailegatu da zenbaitetan: "hau ikaragarri fuertea da!". Gainera, testua irakurtzen duzun aldira aurperen berri bat ikusten diozue zure pertsonaiari. Ur-

te terdi egondu ginen entsaiatzen, eta estreinatzerara ausartu izan ez bagina bertze borts urte egoten ahaliko ginen obra hau lantzen.

GAUR EGUN ZE BERTZE PROIEKTU DUZUE ES- KUARTEAN?

Publikoarekin harreman estuagoa izan nahi dugu, eta baita gure Tailerra jendeari ezagutaraztea ere. Horretarako aurten bizpahiru aldiz atera nahi dugu jendeari. Uda baino lehen seguraski zerbait egingen dugu, baina ez dakigu zehazki zer.

► "Publikoarekin harritu egin gara, gustatu ez zaion jendeari ez baitiote eszena konkretu batzuek min egin, gaiak berak baizik."

LARRAKAIZKO TUNELA

Belatetik Irunera
bide berria osatuz

Belate eta Almandozko tunelak akautu eta trafikoarentzat ireki zirenean aunitzek galdera hau luzatu zuten: Eta Zozaiatik aitzinera zer? Izan ere, hain modu ponpoxoan estreinatu zen errepide zati berriaren segidan betiko bide zaharra baitzegoen. Pixkan-pixkan hasi dira Zozaiatik Irunera bitarteko zatia moldatzen. Nafarroako Gobernuak berriki onartu ditu Zozai-Mugairi-Donztebe errepidea eta Oronozko saihebidetaren proiektuak. 1997ko ekainean onartutako Errepide Planaren arabera, N-121-A errepidean bi horietaz gain, Arrigaztelu, Igantzi-Bera, Bera-Behobia eta Larrakaizko zatiak moldatuko dira 2005. urtea baino lehen. Momentuz, ordea, Larrakaizko tunelaren lanak dira hasitako bakarrak.

TESTUAK: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

Joan den urteko irailan Nafarroako Gobernuko Herri-lan, Garraio eta Komunikabideetako Departamentuak Larrakaizko tunelaren lanak egiteko ardura eman zion Mariezkurrena eraikuntza enpresari, 1.409,9 milioi pezetaren truke. Dena epearen barnean egiten bada, heldu den urteko otsailerako lanak akituak egonen dira. Bien bitartean, mendiak zulatzen hasi dira eta ezponda ikaragarriak ikusten dira han eta hemen, lur garraio dabilzan kamioien eta exkabadoreen harat-honatekin batera.

450 metroko tunela eta lau zubibide

Lan guztiak burutzen direnean, 2.100 metroko zati berria

geldituko da NA-121-A errepidean, gaur eguneko 3.650 metroen ordez (%42,5eko guttiago). Gainera, Larrakaitz eta Iruribieta baserrietako bihurtune gaixtoak saihestuko dira. Hori lortzeko, Bidasoaren gainetik lau aldiz pasatuko da bide berria, 107, 132, 120 eta 107 metroko lau zubibideren bitartez. Posible den lekuetan hirugarren karrila egiten da Irunerako norabidean. Azkeneko zubia pasatuta hasiko da Larrakaizko tunela (450 metro). Tunela xuxen-xuxena izanen da, zazpi metro zabaleko galtzadarekin (3 metro terdiko bi karril), metro terdiko bide bazterra eta metro erdiko espaloiarekin. Tunelaren bukaera gaur eguneko errepidearekin elkartuko da eta Larrakaitz baserritik Irun aldera ateratzeko eta Irunetik Larrakaitzera sartzeko lotura egiten da.

Jose Ignacio MARIEZKURRENA *Sunbillako alkatea*

«Galdutako lurren truke belagiak eta pista berriak lortuko dituzte baserritarrek»



Larrakaizko tunelaren lanak hasi zirela urte erdi pasatu da. Itxuraz, bederen inpartu kozkorra sortzen ari dira.

Desmonte kozkorrag egiten ari dira, bai, nahiko nabarmen gelditzen ari da. Gero, belarra eta landareekin estaliko da, baina halere... Lau zubi egin behar dira eta Ingurugiro Departamentuak emandako aginduaren arabera, pilareak aldatu beharko dituzte, ugalde er-

dian paratu behar ugalde bazterrean paratuz.


Lan hauekin kaltetutako baserritarrek zer diote?

Hor inguruko baserritarrek alegazioak aurkeztu zituzten lanak hasi baino lehen. Batzuk onartu ziren, baina gehienak ez. Espelosin baserriari adibidez, lur aunitz jaten dizkio bide berriak, baina gero bada bertze kuestione bat: eurek kontratistekin solastu egiten

dira eta soberan diren lurrak botatzen ari diren lekuetan, belagi ederrak geldituko zaizkie. Larrakaizko azpi horretan ere zelai ikaragarria geldituko da. Etxera joateko pista berria ere egin diote, dena ormigonatua... eta konforme xamar gelditu dira, nik uste.

Lehen trenabidea ere hartua da zenbait zatitan. Hori moldatuko da?

Orain bide hori hartua dute kamioi eta eskabadorek beraien lana egiteko eta hortik pasatzeko trabak daude. Baina, lanak akitzearekin trenabidea oso-osorik geldituko da, ukitu gabe. Hori Diputazioan garbi utzi genuen: zerbait ukitzen bazen, gero lehen bezala uztea. Hortan konformidatea osoa badugu.



- Larrakaizko trazatu berria
- Arrigazteluko trazatu berria (gutti goiti beheiti)
- 1 Tunelaren iparraldeko aldean aspaldi zulatzen hasiak dira
- 2 Espelosin baserria, errepide berriaren gain-gainean geldituko da.



Ondotik heldu diren errepide zati berriak

Larrakaizko tartea Sunbillako saihebiderekin lotuko du Arri-gazteluko bide berriak. Bi kilometro osatuko dira hemen ere, eta tunel tiki bat egingen da, 250 metro ingurukoa. Sunbillako Herriko Etxeak zerbait alegazio aurkeztu zituen, errepide berria Bortenea paretik eta Kixonearen eskuintetik pasa dadila eska-

tuz. Horren arabera, Larrakaizko lanak akitzerakoan edo lehenxego hasiko dira lanak.

Sunbillako lanak akitzearekin, Zozaia- Doneztebe tartea geldituko da egiteko. Sunbillako alkatea kexu ageri da: «Aurten hasi beharra zuten. Mugairiko arazoa soluzionatu da eta orain ez dakit zeren esperoan dauden».

Bertze zati garrantzitsua Beratik Behobia artekoa da Mariezkurrenaren ustez: «*Hori ere ez dakit noiz egingen den. Bertzenaz gelditu behar du Igantziraino dena egina eta Beratik Behobiara... Bortzirietatik ez badira pixko bat tematzen afera hortan, hiruzpalau urte pasatzen ahal dira hori ukitu gabe*».

IRUÑA-IRUN (Belatekin)

▼ Zozaia-Mugairi-Donztebe

1998-2005 Errepide Planaren arabera 1998an hasi behar ziren lanak, baina berriki arte ez da proiektua onartu. Inbertsioa: 3.500 milioi pezeta. Bide berria: 10 km. Akautzeko epea: 3 urte.

▼ Arrigaztelu

Sunbillako saihebiderearen ondotik, 2 kmko bide berria, 200 metroko tunela eta zubia barne. Aurten hasiko da eta 1.200 milioiko aurrekontua du.

▼ Igantzi-Bera

Berako saihebidera arte, gainerako errepide zatiak (7 km) moldatuko da, 4.800 milioitan. 530 metroko tunela Berrizaunen eta 300 metrokoa Lesakan. 2001. urtean hasiko da.

▼ Bera-Behobia

9 km. Hiru karrileko bidea, hiru tunel labur eta 250 metrotan Biriatur, hau da, Iparraldean sartuko da. 4.800 milioiko aurrekontua eta 2000. urtean hastekoa da.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitzu,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Parkinson eritasunari buruz

Nere senarra ibiltzean aitzinerat gaten da pixket, baina ez du dardari fuertea

Maritxu OSKARIZ
EUIZONDO

Nere senarrak orain dela zazpi bat urte du Parkinsona. Lehenbizian bertigoa zuen, eta medikuak tratamendua jarri zion horretarako. Egun batzuen buruan, ordea, ohatzera ezin sartuz gelditu zen, hankak gogor, eta ez zela ongi hedatzen ahal. Orduan hemengo medikuak bidali zakun Iruñera. Han galdetuz eta galdetuz medikuek hondarrearren zuten Parkinsona zuela. Doike medikazioak gaizki egin ziola eta hortara atera zitzaion eritasuna.

Dena den nere senarrak ez du dardari fuertea, pittet eskutan bainan arras guti. Bere burua nekaturia sumatzen du, eta ibiltzean aitzinerat gaten da pixket, baina oraingo tratamendua horrek babadabila nahiko ongi.

Gaur egun jauntzi, jan eta dena berak bakarrik egiten du. Ibiltzean bakarrik ditu arazoak, iduri du bere burua aitzinet gaten zaiola, baina bertzenaz bizi normala egiten du. Familiak laguntza handia ematen ahal dio Parkinsona duenari. Adibidez, batzutan arropa jauntzeko laguntza eman... baina egia erran nere senarrak ez du laguntza haundirik behar. Bertzalde, hemengo medikuak arras ongi tratatu gaitu. Behar delarik etxera etortzen da, eta batzutan bere kontura ere egin izan digu bisita, guk abisatu gabe.

Oraingo tratamenduekin aunitz hobetzen dira eriak, ez da lehenago bezala



Benedicto AGIRRE
Medikua

Parkinsona adineko jendeari sortzen zaio normalean, gatzetan ez da izaten. Burmuineko prozesu degeneratibo bat da. Buruan egiten da hormona bat Dopamina izenekoa, eta sustantzia hori ttitu egiten da Parkinson erietan. Horren faltak lehenbiziko sintomak ematen ditu.

Parkinsonaren sintomak batez ere fisikoak izaten dira, eta sintoma nagusia ibiltzeko zailtasun handia da. Pausu ttituak ematen dituzte eriek, eta hagitz abudo. Poliki-poliki hasten dira eta gero eta abudoago -kasik lasterka bezala- eta ez dira gelditzen ahal nahi dutenean. Gero gogortasuna ere nabaritzen dute, kasik gorputz osoan. Dardara ez dute denek izaten, eta izatekotan esku eta besoetan izaten dute gehienbat. Horrek eguneroko gauzak egitea zailtzen du, jatea batez ere.

Sintoma sikikoetan, berriz, animoa ttitu egiten zaie normalean. Depresiora ez da ailegatzeko halarre. Beurek ez dira konturatzen aunitz, baina familia bai.

Oraingo tratamenduekin aunitz hobetzen dira eriak, ez da lehenago bezala. Orain hiru-lau egunen buruan sumatzen dute hobekuntza dexente. Parkinson eriak neurologoek tratatzen dituzte, Dopamina hormonak emanez eritasunari aurre egiteko.

Parkinsona 60-70 urteko pertsonetan agertzen da kasuen %80an




Arantxa IRAZOKI
Gizarte Langilea

Parkinson gaixotasuna 60 urtetik 70 urte bitarteko pertsonetan agertzen da kasuen %80an. Hagitez kopuru ttiagoan 50tik 60 urtekoetan. ANAPAR, Nafarroako Parkinson gaixo eta familiarren elkarrearen datuen arabera, Nafarroa osoan gutti gora behera 1.000 Parkinson gaixo daude. ANAPAR elkarrearen barrenean, berriz, 85 pertsona daude gaur egun. Hoietatik 42 gaixoak dira, eta gainerakoak familiakoak.

Eskaintzen ditugun laguntzak ez dira bereriki Parkinsona dutenentzat, baizik eta jende adintuarentzat orokorrean. Halere, pertsona elbarrituendako ere laguntza bereziak badira. Parkinson gaixo batak 65 urte baino guttiago izanez gero, beraz, ezinduendako laguntzetan probexten ahal da.

Nafarroako Ongizate Institutuak bideratzen dituen laguntzak (larrialdietarako telefonoa, balnearioetara ateraldiak...) Doneztebe eta Elizondoko Osasun Zentruetara joz lortzen ahal dira, edota Baztan, Malerreka eta Bortziritako Gizarte Zerbitzuko bulegoetara agertuz.

Gaixoak pentsiorik ez badu, diru laguntza eta pentsionista izaera ematen ahal zaio. Bertze hainbat zerbitzu berezi ere badaude: ohatze artikulatuak edo eskaren kontrako koltxoiak, etab...



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Salaketa:

Nire izeba Krispina laben Juanikotena Arizkungo "Por-doñenean" bizi da. Bidearen egoera txarraren berri eman eta konponketa egin zezaten eskatzeko Baztango Udalera hamaika bidai egin ondoren, orain dela zazpi bat urte onartu zuten bidea konponetzea.

Ikusirik urteak aurrera zihoaztela eta baserrirainoko bideak konpondu gabe segitzen zuela, berriro behartuak sentitu ginen Udalera jotzera, onartu zutenetik sei urte joanak baitziren. Fco. Jose Oiarzabal Alkate jaunaren hitz polit eta hutsak entzun ondoren, 1997ko urriaren 31n, Udalak berri onartzen du bidea konpontzea.

Jakinik Remigio Lizasoain jauna arduradun dela ere, Elizondan hitz egin nuen berarekin Gobernu Batzordeak bigarren aldiz hartutako akordioa gauza zezan. Lizasoain jaunak arrazoia ematen dit, esanez badela garaia bidea egiteko! A ze aurpegia Alkatearena eta berea!! 1999ko martxoaren hasieran azkenean hasten dira bidea egiten. Baina lehen gaizki bazegoen bidea, orain askoz okerrako! Ezin da autoan pasa! Ezin da oinez ere baserrira joan! Bide guztia harrotu, lohiaz gainezka utzi eta ia hilabete batean ez dira makinak itzuli.

Baina grabeeza ez da hori:

Izeba erabat isolatuta utzi dute! Non du burua Alkate jaunak? Zertan ari da Lizasoain jauna? Ez al dira ohar-tzen Krispina labeni butanoa etxeraino eramateko biderik gabe utzi dutela? Eta lurretan botatzeko minerala! Eta berarentzako janaria! Nola arraio eraman behar dira baserriraino?

Guzti hau gutxi izango bultz, Krispinak medikuaren beharra du. Idatzi honen bitartez publikoki, tinko eta indarrez salatzen ditut Baztango alkatea Fco. Jose Oiarzabal eta Remigio Lizasoain. Krispina laben erabat isolatuta utzi dutelako; medikuaren kontsultak telefonoz egitera bortxatu dutelako eta euren axolagabekeri eta hitz faltsuekin errespetu falta ikaragarria erakutsi digutelako!

MAITE GOIZUETA IABEN
(KRISPINAREN ILOBA)

**Ibardingo afera**

Berako Herriko Etxea Ibardingo auzoan lehen oker egindakoak zuzendu nahian dabil. Egia da, Berako herriko arau subsidiarioek Ibardinen deus egitea galerazten zutela, eta gabezi honek bertako komer-

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanaren du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

tzianteen zabaltzeko nahia mugatzen zuela erabat. Ulergarria da, neurri batean, komertzianteez eskura duten tresna guziak beren helburu-eraino alde erabiltzea. Baina zein izan da Udalaren papera? Alkate jaunaren ahoan entzundako hitzak aski argigarriak dira: "Inork salatzen ez badu, jo aitzinerat". Jarrera arduragabe honek, enpresetako nagusiei bidea zabaldu die, nor baino nor aritzeko. Lur komunaleko eremuak okupatu dira, bertan eraikitzen. Batzutan obra lizentziarik gabe, bertzetan fatxada berrietzeko lizentzia eskuratu eta sekulako apliazioak egin. Azpikeri hauek denak onartzeko demagogia merkea erabili da: "Ibardinek lana eta onura ekonomikoak sortzen dizkio Berako herriari". Egia da neurri batean, baina egia haundiagoa da batzuei bertzei baino gehiago komeni zaiela saltsa guzti hau. Berako herria guzti honekin kaltetua ateratzen da. Lehenik, lizentziarik gabeko obratik Herriko Etxeak ez dituelako aurrekontuaren gaineko zergak kobratzen, edo behar baino gutiago kobratzen duelako. Bigarrenik, behin eta berri-ri herri lurra okupatzen ari delakoz. Gogoratu behar da lur komunala herriarena dela eta ez Udalarena, eta Nafarroako Foru Legeadiak herri lurak bereziki babesten dituela interes pribatuaren aitzinean. Badira tramiteak lur ho-

ri saltzeko edo erabilera zehatz bat emateko, baina Ibar-dinen ez dira orain arte errespetatu.

Geroztik Arau Aldatzeko plana jarri zuen Herriko Etxeak, legalak ez ziren hainbat lan legalizatzeko asmoz. Legeak erraten duenez, Arau Subsidiarioen aldaketa egiten ari den bitartean ezin da obra lizentziarik eman. Baina Berako Udalak lege honetan ere zirrikituren bat harra-patzeko pirueta legalak egin ditu, eta nola edo hala obra lizentziak ematen segitzen du, baita bere abokatuak emandako aholkuaren aurka.

Orain gainera, Diario de Navarran argitaratutako informazioaren bitartez normaltasun kutsuz mozorrotu nahi dira. Berri hau modu eta momentu zehatz honetan argitaratzeak zer erran nahi du? Inork eskatu gabe Herriko Etxeak bere burua zuritu beharrean somatu duela? Afera hau kaltegarria da: bai muinean, herri lurra eta zergen bilketaren galeragatik, eta bai formetan ere, Berako Herriko Etxeak Ibardingo zenbait merkatariri zernahi egiteko bidea eman diolako hitzeko akordioaren bitartez, tramite eta arau guzrien gainetik.

OSKAR GOÑI PETRIRENA



Tintoreria *Jaiione*



Elizagibela, 7 • DONEZTEBE • 948 45 05 21

GARBITEGIA

- Laneko arropak
- Mantak-maindariak-edredoiak
- Gortinak
- Fundak

TINTATEGIA

- Garbiketa idorrean
- Oihalak

TAPIZATUAK

- Alfonbrak

TINTATEGIA

- Garbiketa idorrean
- Oihalak



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Nafarkaria 99ko martxoaren 26a

«Jendeak ez dudala igo behar dio behin eta berriro, baina berdin zait; zenbat eta gehiago erran, animo haundiagoa dut igotzeko».

Ana LARRETXE
ARANTZA


Gasherbrum Ilko espediziokidea
Nafarkaria 99-03-26

«Lasterketetan aldatu egiten naizela uste dut, eta asko gainera, irabaztea bakarrik baituzu burutan. Eguneroko bizitzan ez naiz horrelakoa».

Amaia LUJANBIO
GOIZUETA

Atleta
Diario de Navarra 99-03-22

BOTA BERTSOA



Ttipi-Ttaparen 250. alea

Ekhine ETXEPETELEKU

Neurria: ZEBERIOREN SEIKOA

Adar sendoen gisara
bi, bost, zero ale, hara!
harpidedunak zazpi mila bat
hosto berde gara.
Telebista fruitua da
goxo ta ondua jada
udaberria indartsu dator
bertze behin Ttipi-Ttapara.

Le(he)n txuri-beltza nagusi
orain kolore ta guzi
Ttipi-Ttaparen aurrerakuntza
nork ez du ikusi?
Aupa ta lanari eutsi
ta muga guziak hautsi
euskara hainbat laguntzen duna
ez dezagun hiltzen utzi

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

**ASTELEHENA, 10**

13:00 **Herriz Herri:**
21:00 **Berriak**
21:00 **Jokoa Solas:**
Asteburuko kirol jardueren errepaso.

ASTEARTEA, 11

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**

ASTEAZKENA, 7

13:00/13:30 **Programa berezia** (errepika)
21:00 **Programa berezia**

ASTEAZKENA, 12

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzetan** Kultur eta gizarte gaietarako buruzko magazina.

ORTZEGUNA, 8

13:00/13:30 **Programa berezia** (errepika)
21:00 **Programa berezia**

ORTZEGUNA, 13

13:00 **Berriak** (errep.)
13:30 **Bidegurutzetan** (errepika)
21:00 **Berriak**

**ORTZIRALA, 9**

13:00/13:30 **Programa berezia** (errepika)
21:00 **Programa berezia**

ORTZIRALA, 14

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri**
Herrietako berrien bilduma herri baikoitzeko berrie-maileen eskutik.

Udalekuak euskaraz egiteko aukera ematen dute inguruko Euskara Zerbitzuek

Izen emateko epea apirilaren 12tik 16ra egonen da zabalik

TTIPI-TTAPA

Azkeneko urte hauetan Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Leitzaldeko Euskara Zerbitzuek udalekuak euskaraz antolatu dituzte. Udaleku horietan Nafarroako haur eta gazte euskaldunak elkartzen dira, astebeteko egonaldietan.

SEI ETA HAMEKA URTE ARTEKOAK ALKIZARA ETA HAMABI ETA HAMASEI ARTEKOAK BIDARRAIRA

Sei eta hameka urte bitarteko neska-mutikoen egonaldia Gipuzkoako Alkiza herrian izanen da. Bertan, hondartzara, mendira eta errekarara ibilaldiak, tailerrak, jolasak eta igeri-letara ateraldiak egingen dituzte. Parte hartu nahi dutenek egun hauek aukeratu ahal izanen dituzte: Uztailaren 9tik 15era (9-11 urtekoak); uztailaren 15etik 21era (6-8 urtekoak); uztailaren 21etik 27ra (9-11 urtekoak); uztailaren 27tik abuztuaren 2ra (6-8 urtekoak); abuztuaren 2tik 8ra (9-



Euskara Zerbitzu bakoitzak eskaintzen dituen lekuak

Euskara Zerbitzua	6-11 urte	12-16 urte	Telefonoa
Bortziriak	10	10	948 634125
Baztan	15	15	948 580006
Leitzaldea	25	15	948 610636
Malerreka	30	10	948 451746

11 urtekoak) eta abuztuaren 8tik 14ra (9-11 urtekoak). Prezioa 13.000 pezetakoa da eta horren barnean daude gastu guziak (bidaia, egonaldia, otorduak, ekintzak, aseguruak...).

Hamabi eta hamasei urte bitarteko neska-mutikoen Nafarroa Behereko Bidarra herrian egingen dute egonaldia. Han egingen dituzten ekitaldiak natur kiroltan oinarrituko di-

ra, mendia, rafting, piragua, kainoien jautsiera edo eskalada, bertzeak bertze. Horrez gain, tailerrak eta jokak ere egingen dituzte.

Parte hartu nahi dutenek egun hauek au-

keratu ahal izanen dituzte: Uztailaren 22tik 28ra (12-14 urtekoak); uztailaren 28tik abuztuaren 3ra (14-16 urtekoak); abuztuaren 3tik 9ra (12-14 urtekoak). Prezioa 15.000 pezetakoa da (gastu guziak barne).

IZEN EMATEKO EPEA APIRILAREN 12TIK 16RA BITARTE ZABALIK

Udalekuetan parte hartu nahi izanez gero, izen emateko epea heldu den astean izanen da, apirilaren 12tik 16ra. Horretarako zuen Euskara Zerbitzura deitu beharko duzue, goizeko 8etatik 3ak arte. Lekuak mugatuak direnez, izen ematearen ordena errespetatuko da, Baztango kasuan izan ezik. Baztanen, izen eman dutenen artean zozketa egingen dute epea bukatu ondotik.

Koadroan ageri dira zerbitzuek eskaintzen dituzten plazak eta telefonoak.

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

E E K L E
st tu

Tfnoa: 948630259 - BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA

© 948630155
BERA

ERROTAZAR

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia

Agerra Auzoan

Xingil
ileapa indegia

© 948631462 • Altzate I • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

Ibardingo arau subsidiarioak aldatu ditu Herriko Etxeak

Helburua legez kanpo egindako obrak legalizatzea da

ASIER GOGORTZA

Ibardingo 25 bente-tan obra aunitz egin dira azken urte hauetan, dendak haunditzeko asmoarekin gehienetan. Obra hoietakoz batzuk, ordea, legez kanpo egin dira, orain arteko araudiak ez baitzuen hedatzeko aukerarik ematen. Horren aitzinean, Herriko Etxetik arauak aldatzeko prozesua martxan jarri zen, eta errekurtsio pare bat aurkeztu baldin bazen ere, azkenean onartu egin da arauen aldaketa.

Hemendik aitzinera, beraz, Ibardingo kantina batzuk obra egiteko baimena izanen dute, dagokien lur-eremuaren barrenean, beti ere. Dena den, erran behar da lur-eremu horiek herri-lurrak direla, komunalak, eta beraz, herriari erosi behar dizkiotela bertan eraiki nahi izanez gero.

Bertzalde, Udalak aginduta, 'Estudio 5' izeneko enpresa ikerketa bat egiten ari da orain arte okupatu diren lur-eremuekiko: kantina bakoitzaren eskriturretan zenbat metro koadro ageri diren ikasiko dute lehenik, eta horren arabera benta bakoitzak okupatu dituen herri-lur metroak aterako dira.



Arg.: Ayla

Aurten ere gaez pasatu zen Korrika herritik

Martxoaren 23ko 00,40ak aldera sartu zen Korrika Beran, minutu guttiko atzerapenarekin. Herriko sarreran txalapartaren hotsek egin zioten harerra Korrikari, eta ordu txarra izan arren beratar aunitzek egin zuen laster herrian barna. Herriko hainbat talde, elkarte eta enpresak Korrikako kilometroak erosi zituzten, euskarari bulkaldi ekonomikoa emateko asmoz.

Udal aurrekontua: 445 milioi pezeta

Udalaren kontura trago bat hartzeko aukera izandu dute, ohiturari segituz, joan den astean alkate eta zinegotziek, 99ko aurrekontuak ahobatez onartu baitziren Udalbatzarrean. Bigarren albinte bat kontratatze asmoa dago aurtengoz. Bertetik, kirola eta kultura gaiak eramane dituen koordinatzaile bat aukeratzeko deialdia ere egingen da laster.

Apirilaren 18an "Caricias" antzezlanaren errepikatuko dute

Lehendabiziko estreinaldiaren arrakasta ikusita Sergi Belbel idazle katalandarraren "Caricias" obra berriz eskainiko du Lamixine BATEk. Kultur Etxean izanen da, apirilaren 18an.



Bertzalde, bi egun lehenago ere antzerkia ikusteko aukera izanen dugu Pui ostatuan, Kultur Errotaren barrenean. **Mai Gorostiagak** bakarkako lan bat eskainiko digu, eta gero **J.A. Urbeltzen** dantza saioa izanen da ikusgai. Hau dena 10etan hasiko da, erran bezala, hilaren 16an. Azkenik, erran **Liburu Tiki Eguna** 19tik 21era ospatuko dela, Lamixine BATEk antolatuta.

Portzontzia

«Aurten izan da bakarrik atera naizen lehen urtea»

Joan den martxoaren 28an Iruñean jokatu zen Nafarroako Haur Kantarien Txapelketan, 7 eta 11 urte bitarteko bakarlariren kategorian, beratar hau suertatu da irabazle. Jesusen Bihotza Ikastetxean aritzen den Josune Elgorriagak "Loreak udan" kantua abestu zuen bakar-bakarrik, baina hala ere ez omen zen sobera urduri jarri, «pixko bat» bakarrik.

Joan den urtean ere bertze zenbait ikasleekin batera parte hartu zuen txapelketan, baina «aurten da bakarrik atera naizen lehendabiziko urtea». Beraz, ezin hobekiago estreinatuta dela bakarlarri gisa. Hurrengo erronka Euskal Herriko Txapelketa izanen du Josunek, ekainean Arrigorriagan ospatzekoa dena.

Final honetan bertan, ttikien taldekako kategorian, Labiaga Ikastolako Ttipi-ttariak taldeak parte hartu zuen, indio eta bake-roz jauntziak, eta McMikel abestia kantatuz.



Josune ELGORRIAGA

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

ULAIK
ileapaindegia
Kanttonberri, 4 • BERA
Tel.: 948 631427

LIBURU TIKI EGUNA
© 948631076 • BERA



Korrika-11

Beti Gazteko kirol taldeek, Bertso Eskolak, ikastolak, Aceraliako komiteak eta Tantirumairu dantza taldeak eraman zuten Korrikaren lekukoa martxoaren 23an.

Argazkiak: TTPI-TTAPA TELEBISTA

Irain eskolako pilotalekua moldatzeko dirulaguntza eskatu du berriro Udalak

Hogeita bat milioi terditik goitiko aurrekontua izanen luke lan honek

AITOR AROZENA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak, iakstetxe publikoetan hobetze eta moldatze lanak burutzeko dirulaguntza deialdia onartu du berriki. Hori dela eta, Irain ikastetxe publikoko pilotalekuaren konponketa (21.579.480 pezetako aurrekontuarekin) eta haurrek jostatzeko etxola bat egitea (214.460 pezetan baloratua) diruz laguntzea eskatu du Udalak, alkateak azken batzarrean jakinarazi zuenez. Pilotalekuaren moldaketa joan den urtean ere eskatu zuen Udalak.

Alkateak kexa bat ere aurkeztu du Nafarroako Gobernuko departamendu horretan. Bere ustez, dirulaguntzarik jasoko duten segurtasunik ez duten obrak burutzeko aurrekontuetan kontu bat ezartzera beharrezakoan, udalen funtzionamendua larriki itxuraldatzen da.

Bertzalde, Irain eskolako zuzendariak ikastetxean lan berriak egitea eskatu du. Horien gastua nahiko haundia denez, aurrekontu-sail berezia sortzea eskatuko luke. Gai hau hurrengo bilera batean aztertuko du udaleko Herrilan Batzordeak.



Irain eskolan zenbait moldaketa egin nahi dira.

Artxibokoa

Jubilatu elkarteak Guggenheim-era

Hasiera batean apirilaren 16rako prestatua bazez ere, egun horretan Guggenheim museoaren zati bat itxia dagoenez, apirilaren 23ra gibelatu du San Fermin jubilatutako elkarteak bertara egin beharrezko bidaia. Badirudi bidai honek erretiratuen interesa piztu duela, hau idazterakoan dagoeneko ez baitzegoen lekurik autobusean. Egia erran, 2.800 pezetaren truke egunpasa polita egiteko aukera izanen dute: goizeko 7,30etan autobusean abiatu, bidean gosaltera gelditu eta Guggenheim museoa bisitatu goizean. Arratsaldean

berriz, Corte Inglesera joanen dira. Bien bitartean, Gatican bazkalduko dute.

Eskol-Txiki moldatzea

Eskol-txiki moldatzeko Jokin Pastor arkitekto teknikoak idatzitako memoria onartu du udalbatzak aho batez. 4.291.720 pezetako aurrekontua izanen du lan honek eta guttienez hiru enpresei eskaintza egitea eskatuko zaie.

Igerilekuetako arduraduna

Udahonetan igerilekuen ardura hartu nahi duenak apirila akautu baino lehen bere proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko du udal bulegoetan.

XATURBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ANA
janaridenda
 Bittiria, 41 • © 948637944
LESAKA

Lurrindenda

Estetika
 Behoko Plaza 8 • © 948637791 • LESAKA

IRU BIDE

ERRETEGINA
 Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

M. Manuel Zamorano

Bernizadurak
Pintura
orohar
 Bittiria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

ETXALAR

Lur garraioek karrikak eta bideak zikintzen dituzte

Udalak hori ez gertatzeko erabakiak hartu ditu

PELLO APEZETXEA

Udalaren hondarreko bilkuran hori izan zen gai bat. Karrika inguruan, edo eta Etxalar-latsako bidegurutzean, azkenaldian ikusten den bezala, lurak alde batetik bertzerara mugitzen direnean, bideak eta karrikak maiz zikinduak ikusten dira. Hemendik aintzinerara, zorrotzago begiratuko du Udalak, obra berriak egiteko baimena ematerakoan garbitasuna zaitzeko gogoratuko die, eta, axolagabeei obrarako baimena ukatu ere egingen die.

Bekolanda

Bekolandako karrika noizpait akautu edo

akautuxe dago. Hainbat kexa sumatu ondotik, zola breaztatuta garbi eta leun gelditu da. Auzo berri baten itxura hartzen hasi da Bekolanda.

Mediku zerbitzuaren murrizketa

Sinadura aunitz bildu direla eta, berriz ere Osasun Departamenduari idatzi dio Udalak, zerbitzuko orduak murriztearen kontra dagoela. Ordutegi murriztua bera ere oraindik gehiago murrizten delako arrenkura ere agertu du. Gainera, zerbitzu zabalagoa eskeintzeko galdetu du Udalak, analisiak herrian bertan egingea, errate baterako.



Korrika ttikia herrian egin zuten

Aurten ere ez dute hurrek huts egin, eta euskara gure hizkuntzaren aldeko oihua hedatu zuten herrian. Landagain Eskolak bultzatuta, Altxata Elkarteak ere laguntzaile, karrikako auzoak zeharkatu zituzten, plazan beranduarekin besta giroa borobiltzeko.

Arkupekoen besta apirilaren 18an

Etxalarko Arkupekoen besta eguna, apirilaren 18an izanen da: bazkaria, musika, solasaldiak, dantza. Arratsaldea luzatu bada ere, bete-betea izanen dute.

Batzarra

Usoa Kooperatibak urteko Batzar Nagusia, apirilaren 11n egingen du.

Pentsarria



Mikel ZUBIETA

Nafarroako Matematika Olinpiadan parte hartu eta 2.a sailkatu zen. Hori dela eta, Espainiako Olinpiadara gonbidatu zuten, Granadan egin dena. Han izan dira Nafarroako hiru lehen sailkatuak. Zazpi orduko frogak egin dituzte, bi egunetan banatuak, ingurua zerbait ikusi, eta etxera.


BITTIRIA HARATEGIA
 ☎ 948 627555
 Bittiria, 43 • LESAKA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 630763

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 ☎ 948635290 **ETXALAR**

«USOA»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

KOXKILA OSTATUA

 Zarandia, 4 - LESAKA

LEGARRA
 Legarrea, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espirealean ere egiten dira

HARITZPE
 ☎ 948635235
 ☎ 948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

IGANTZI

Sarrolako errepidea moldatzeko dirulaguntza onartu da

Martxoaren 23an, bigarren aldiz segidan pasatu zen Korrika Igantzitik

OSKAR TXOPERENA

Abudo hasiko da Udala Sarrolako errepidea moldatzen. Onartua omen dute dagoneko Nafarroako Gobernukoek eman beharreko laguntza. Aurrekontua hiru miloi pezetara ingurukoa da, eta Iruñetik bidali beharrekoa %70 izanen da. Hasiera batean zola fresatu egingen da, horren gainetik ez baitago kapa berria botatzerik. Ondotik Fabrika zaharraren ingururik ia Iriberea arte botako dute zola berria, brea beroarekin. Gain aldeko kunetak momentuan ez badira egingen ere, errepidea zehar-

katuko duten tuboak sartuak geldituko dira, kunetak egiten direnerako. Eskertuko dugu denak ere herriko sarrararen moldaketa.

Biltokikoek sagardotegira

Arrakastatsua izan da Biltokik sagardotegira antolatutako duen ateraldia. Abudo bete zen zerrenda, eta 45 lagun inguru joan ziren martxoaren 20an Petritegira.

Udalaren dirulaguntzak

50.000 pezetako dirulaguntza emanen dio Udalak Dantza Taldeari eta 100.000 pezetakoa Abesbatzari. Hurrengo



Korrika herritik pasatu zen

Bigarren aldiz jarraian eta ordu beretsuan pasatu zen Korrika Igantzitik. Hiru izan ziren Igantzik erositako kilometroak: Igantziko Udalak, Biltoki Elkarteak eta Eskolak eta Guraso Elkateak erdi bana. Orain dela bi urte bezala, arratsaldez hasi zen Korrikaren inguruko besta, Korrika tikiarekin. Eskolatik atera ondotik, Korrikari buruz prestatutako marrazkiak paratu zituzten haurrek pilotalekuaren paretean, gero berendu eta Korrika tikiari ekin zioten. Eskolako maila bakoitzak bere zatia egin zuen herri inguruan eta azkenean Berako musika Eskolako perkusio taldearekin egin zuten besta pilotalekuan. Ilunabarrean, berendua-afaria izan zen Biltokin Korrika etorri bitarteko orduak betetzeko. 11 terdiak aldera tokatu zitzaion lekukoa hartzea Biltoki Elkarteari. Sarrolan Alkateak hasi zuen Udala zegokion kilometroa eta Aizalegiko errebueltan hartu zuen Faustinok Eskolaren txanda. Argazkian ageri den bezala, eta berandu bazen ere, haur aunitzek gelditu nahi izan zuen Korrika 11ren esperuan, lekukoarekin bere zatitxo egiteko. Ea hemendik bi urtetara berriz ere hemendik pasarazten duten!

batean aipatuko ditugu Abesbatzak aurten egin beharreko ateraldi eta kontzertuak, aurten ere aunitz baitira.

Ikastaroen bukaera

Gimnasi eta eskulan ikastaroak bukatzera doazi. Horrelako ikastaroak apirila aldera in-

darra galtzen joaten direla, eguraldiak hobera egiten duelako. Aste honetan bi afarirekin ematen diete despedida.



MARTIKO

Gure baserrietako produktua

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzi Benta • © 948627572 • Faxe: 948637313

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

© 948627573 • LESAKA

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • © 948 637 411 • Faxe: 948 637 313



ARANTZA

Mozorroen besta ospatu zen martxoaren azken asteburuan

Arkupeak elkarteko bazkideek bazkaria izan zuten martxoaren 28an

ELIXABET ETA GARBINE

Mozorroen besta dela eta, herrian martxo-ko azken asteburuan zenbait ekitaldi izan ziren.

Larunbat arratsean, Aterpen egin zen aforian, 85 bat lagun bildu ziren, Jokin Sorozabal eta Millan Telleriaren bertsoak eta Olatz eta Leirenen trikitixa doinuak aditzera. Herriko bertsolaria eta mozorroa den Aitor Telletxea ere animatu zen bertsoan aritzera.

Igandean, zenbait desafio egin ziren herri kirolatan. Argazkian ageri den bezala, piketeak ere xuritu zituzten eta aukera ederra eman zieten herritarrei ongi pasatzeko. Eguerdian egin ziren herri kirol probetan, Nafarroako txapelketan puntuagarria zen probak jokatu ziren.



Piketeak xuritzen herri kirol desfiorako.

Argazkia: Elixabet

Arantzako bi talde daude, kadete eta infantil mailan. Kadeteak hiru garrenak daude sailkapen orokorrean, eta infantilak, berriz, lehendabizikoak doazi. Txapelketa honetan parte hartzen duen inguru haue-

tako herri bakarra izanik, Sakana eta Iruñaldeko taldeekin lehiatu aritu ziren.

Arkupeko bazkideen bazkaria

Arkupeak elkarteko herriko kideek bazka-

ria izan zuten martxoaren 28an. Mezaren ondotik, 50 bat lagun hurbildu ziren Zahar Txokora bazkaltzera. Bazkari eder baten ondotik musika ere ez zen faltatu eta akordeolari bat aritu zen giroa alaitzen.

Pistak moldatzeko dirulaguntza eskaria

Azken aldi honetan egin dituen euriak direla eta, herriko pista batzuk hondatu dira edo erortzak sortu dira.

Honela, Aientsa, Azkilarrea eta Bordalarreko lau zati moldatzeko dirua eskatu du Herriko Etxeak. Moldaketa lanak instantean hasiko omen dira.

Eskolako haurren ateraldia egin dute Ablitasera

Eskolako haurrek ateraldi batzuk egin dituzte azken aldi honetan. Bortzirietako Lehenengo Zikloko haurrak Donostian pasatu zuten eguna eta hiru garren zikloko haurrak, berriz, martxoaren 29tik aitzinera Ablitas herrian egon ziren, hiru egunez.

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

ZALAIN
 Zalain Auzoa
 ☎ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

ttipi-ttapa internet
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
 E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • **BERA**

PIKABEA
 Molinero drogerian *pinturak*
 galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
 • Fatxadak
 • Barne dekorazioa
 • Pintura orokorrean
 Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

EROSLE
LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hobena
Frexkuena zugandik hurbilago
 Bittiria, 67 - ☎ 948637264

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

SUNBILLA

Antzakaitz taldeak antolatutako Asteburu Kulturala ongi joan zen

Halere, jende gehixeago espero zen bertso-afarian eta aizkora apustuan

JAIONE ETA ALBA

Antzakaitz kultur taldeak antolatutako Asteburu Kulturala orokorrean ongi atera dela erraten ahal da. Ortziralean arratsaldean gaztetxoek arras ongi pasatu zuten beraiantzat prestatutako jokuekin eta hainburtako laister egin ondoren, txokolatea ere gustura hartu zuten. Gauean bertso afaria izan zen Ulibeltzak elkartean, bertsolariak Estitxu Arozena eta Xebastian Lizaso zirelarik. Bertze urtetako afariekin konparatuz, nahiko jende gutti bildu zela erran behar da, 40 pertsona inguru. Halere, giro ederra sortu zuten bertsolariak, jendeari adarra joz. Ondoren, Doneztebeko Mikel Salaberri akordeolariak dantzan jarri zuen jendea.



Lehen aldiz egin den triki-poteoa izan da Asteburu Kulturalako ekitaldi arrakastatsuenetakoa bat.

Argazkia: Jaione

Larunbat goizean ere haurrak izan ziren protagonista, Iñaki Lareok eskuz egindako zenbait gauza egiten erakutsi baitzuen. Arratsalde guzian paleta goma eta frontenis txapelketak izan ziren pilotalekuan.

Gazteetan, Iosu Apeztegia eta Haritz Arriola izan ziren txapeldun; emakumeen artean Edurne Zubieta eta Joana Hernandezena eta gizasemeetan, Juanjo Ibarra eta Esteban Maritxalar. Partiduak akitu be-

zain laster, «triki-poteoa» hasi zen. Aurten lehen aldiz egin da eta 30 bat lagun bildu ziren. Jator taldearekin egin zen gaupasara jende dexente etorri zen, herritarak nahiz kanpokoak. Arrakasta gehien

izan zuen ekitaldia, herriko gizon-emakumeek egindako eskulan erakusketa izan zen. Larunbat goiz eta arratsaldean Ulibeltzak elkartera jende aunitz joan zen. Igande eguerdiko mus txapelketan izena eman zuten 20 bikotetik, Patxiku Apeztegia eta Mariano Gonzalezek irabazi zuten.

Arratsalderako prestatua zegoen aizkora apustuak aldaketa tiki bat izan zuen, Arrospidek etorri ezin zuela eta, Larretxea izan zen Olasagastiren aurka aritu zena. Ondoren zariaren zozketa egin zen eta Tiburtzio Espelosin «Xibolak» eraman zuen.

Antzakaitz kultur taldea gustora gelditu da eta lerro hauen bidez ekitaldiak antolatzen eta beraietan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948 630735

ETXANDI TXOKO

jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • © 948 450 491

BEINTZAko OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

Titi Ostatuak eta Kaifas-ek iazko finala errepikatu zuten areto-futbol txapelketan

Joan den urtean bezalaxe, Titi Ostatukoak izan ziren garaile

PATXI IRIARTE

Doneztebeko Titi Ostatuak bigarren urtez segidan irabazi du Baztan-Errekako areto-futbol txapelketa. Joan den urtean bezala, Kaifas taldeari irabazi zion finalean, baina aurtengoa penaltiak bota behar izan zuten txapela eskuratzeko, arauzko denbora binako berdinketarekin akitu baitzuten. Bi taldeak errespetu haundiz kantxaratu ziren eta bi alditan Titi-koak aitzinetik paratu ondotik, bietan berdindu zuten Kaifasekoek. Penaltiak loteria hutsa izaten dela erraten da eta oraingoan, Titikoen alde erori zen, azkena Felipe Ganboak golean gauzatu baitzuen.

Iazko txapeldun eta txapeldunorde berak izan arren, joan den urtean baina gehiago sufritu behar izan zuten finalera ailegatzeko, batez ere lehendabiziko fasean. Berdintasuna izan da nagusi eta talde guziek partiduren bat galdu dute eta finalistez gain, Berako Erre-



kalde ostatuak, Elizondoko Txokotok edo Doneztebeko Bordatxok ikuskizuna eman dute.

Finalerdietan, Titi Ostatuak 8 eta 2 irabazi zion 12 Ostatuari, nahiz eta lehendabiziko zatia berdindu xamarra izan. Bertze finalerdian, Kaifasek 3 eta 0 irabazi zion Bordatxori eta hemen ere, markagailuak erakusten duena baino berdintasun haundiagoa izan zen.

Hirugarren eta laugarren posturako lehian Bordatxok 3 eta 2 irabazi zion 12 Ostatuari.



Felipe Ganboak golean gauzatu zuen penaltiarekin Titi ostatuak bigarren urtez segidan irabazi du txapelketa. Doneztebeko alkatearen eskutik hartu zuten saria.

Argazkia: Zaldua

BERTIZ

Bidasoako jaialdiak iragartzeko kartel lehiaketa zabalik

Bertziko Turismo Partzuergoak Bidasoako Jaialdiak 99 iragarriko dituen kartela argitara eman nahi du eta horretarako lehiaketa deia egin du. Kartelak kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz. Neurria 50x40 zm.koa izan behar da, 1,5 zm.ko ertza utziz. Derrigorrez agertu behar da: *Festivales del Bidasoa 99 Bidasoako Jaialdiak. Agosto-Septiembre / Abuztua-iraila. Consorcio Turístico de Bertziko Partzuergo Turistikoa.* Gaialibrea izanen da, zertarako den kontuan hartuz.

Lanak Partzuergoko bulegoan aurkezteko epea maiatzaren 15ean akutuko da eta lehendabiziko saria 50.000 pezetakoa da.



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

Iberrala Martzuria
Martzuria errega
0-14 urte
Martzuria 6 - Martzuria
Martzuria



BITARTE
Lanbide-orientazio zerbitzua

: Lanbide-orientazio zerbitzua Baztan-Bidasoa eta Leitzaldean

Lan bila ari ziren 1.014 pertsona lagundu ditu mendialdean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako mendialdeko langabetu, langile, enpresa eta erakunde publikoei zuzendutako zerbitzua da Bitarte. Lan munduan sartzen laguntzea du helburu, horretarako enpresek egin beharreko aldaketetan eta giza baliabideen hobekuntzan parte hartuz.

Cederna-Garalur eta CEIN erakundeen babesean eta Europako Gizarte Fondon eta Nafarroako Gobernuaren finantziazioaz 1997an sortu zenetik, Bitartek lan bila ari ziren 1.014 pertsona lagundu ditu orain arte. Hauetako 213k mendialdeko 93 enpresetan lana aurkitu dute. Era berean, enpresa nahiz tokiko erakundeentzat 14 lan-burtsa sortu eta kudeatzen lagundu du.

Arestian aipatu bezala, Bitartek Nafarroa-



Itziar Urbiola, Baztan-Bidasoako arduraduna eta Pilar Vicente, Sakana-Leitzaran-Larraun-Ultzamako arduraduna.

Argazkia: Joxemañuel

ko mendialdea du lan-eremutat, hiru eskualdetan banatua: Baztan-Bidasoa (Doneztebe, Elizondo, Bera eta Lesaka), Itziar Urbiolaren ardurapean; Sakana-Leitzaran-Larraun-Ultzama, Pilar Vicentere ardurapean eta Piri-

noia-Aurrepirinioa, Begoña Aletxa arduradunarekin.

Baztan-Bidasoako ezaugarriak

Bitartek egindako azterketaren arabera, Baztan-Bidasoan jarduera osagarriak dituz-

ten bi gune nagusi, Elizondo eta Doneztebe, eta bigarren mailako bi daude, Bera eta Lesaka. Elizondon salerosketa eta zerbitzuak; Doneztebe, salerosketa; Lesaka eta Bera, industria.

Azterketak agertzen du Baztan-Bidasoan zo-

naldearen etengabeko eskari aldaketari, industria eta zerbitzuen beharrei kasu eginez eta eskualdeko sektore dinamikoenei begira formatutako langileak behar dituela eta prestakuntza profesionalak dibertsifikatua izan behar duela.

Baztan-Bidasoan 36 aldiz egin du bitartekari lana eta iaz, lau lanburtsa sortzen lagundu zuen Bitartek, Bera, Lesaka eta Baztango udaletan eta Bertizko Turismo Partzuergoan.

Sakana-Leitzaran-Larraun: 500 lagun lan-burtsan

Industria garapena ez da berdina Sakana, Leitzaran, Larraun eta Ultzama ibarretan. Eskualde honetan azpimarragarriena, lan-burtsan izena eman duten 500 pertsonak dira. Lanburtsak sortu dira, Plazaola Partzuergoan adibidez.

Zein doa lan bila eta enpresek zer behar dute?

Lehen lanpostuaren bila doazen emakume gazteek erabiltzen dute gehien bat Bitarteren zerbitzuak

Lehen lanpostuaren bila dabilzan 20 eta 30 urte bitarteko emakumeak dira Bitarteren zerbitzua gehien erabiltzen dutenak Baztan-Bidasoa eta Leitzaldean. Normalean, emakume gazteek prestakuntza hobea dute eta zenbat eta adinean aurrerago, prestakuntza gutxiago

dute. Lehendabiziko lanaren bila doaz, beraz, esperientzia eskasa dute, baina hori baina gogo eta motibazio handia.

Eskualdean gehien eskatzen diren profesionalen ezaugarriak, berriz, honako hauek dira: gizonetzkoa, prestakuntza ertaina (Lanbide

Heziketa I edo II) edo lan esperientziaduna eta ekoizpen prozesuan lan egiteko.

Bitarte erabiltzen duten enpresak ttikiak dira normalean, industria sektorekoak eta enpresaren behar jakin bat betetzeko aldi baterako kontratua eskaintzen dute gehienetan.





1936ko Espainiako Gerla

- 1 Espainiako gerla nahi dut esplikatu
Huna bertsu berriak kantuz politika
Zerengatik ari diren gizonak milaka
Jada bi urte huntan bat bertzearen hilka
Jainkoaren lege zuzenaren aurka.
- 2 Bere zuzenean zen gobernamentua
Lehen nagusi zirenek bozetan galdua
Desgostuan zelako hango populua
Frente Popular zuten bozetan sortua
Kintze egiten duenak hartzen zakua.
- 3 Sakatzearen ondotik jin da errefera
Frente Popular etzen alferren gustara
Zerendako ez utzi bertze bozetara
Legez ez zezaketen auzirik atera
Deliberatu dute gerla ematera.
- 4 Gauza izigarria mundu huntan gerla
Pobrearen bakantzeko asmatua dela
Aberatsa zokotan gordeka dabila
Erredoblatzen dute beren kapitala
Kintalka fabrikatuz obus eta bala.
- 5 Nun dire emazteak, haur eta zaharrak
Pusketan xehatuak badire bakarrak
Eskapatu direnen oinaze negarrak
Egoitzak suntsituak, galduak senarrak
Horra Frankotiarren egintza ederrak.
- 6 Aleman, Italiano, Marrokano beltzak
Burrero izan dire Espainiarentzat
Horien gobernatzaile Franco odol hotza
Heriotzez suntsitu zombat ume xurxa
Horra nolakoa den fasisten bihotza.
- 7 Mundu guziko fasista denak branka bera
Laister hel egiten dute elgar laguntzera
Gure enganatzeko gezur erraitera
Pobrea errestan dago horientzat hobe da
Merke jin dakioten gauza mahainera.
- 8 Gizon frango bada "travaux forcés" denik
Horiek baino gutiago merezi duenik
Franco behar liteke han sartu lehenik
Segi dezan Hitlerrek eta Mussolinik
Fandangoen emaitako Larok laugarrenik.
- 9 Jainko jaunak emanak hamar manamendu
Bortzgarrena nola den emazue kondu
Gaixtaginak ifernua desafiaturen du
Ez luke izan behar nihun barkamendu
Gauza bera behar du hark kondenamendu.
- 10 Konfiantza badut munduarendako
Zuzentasuna egin duela nahiko
Erresponsable dela Generala Franco
Espainiako gerlan hil direnendako
Sinesten ez duena ez da katoliko.

**Olandeiko
Fifinen eskutik**



Kituen kantua

- 1 Publikatzen noa kantu hauek kito jende horienak
orai dainokoan gure artean pasatu izan direnak
alperrek dira oro lapurrak eskezaleak gehienak
okasio eta eskandalioa faltatzen ez zaiotenak.
- 2 Kito jende horien bizitza guziz dago xeblea
Honrados dira aurrian eta edo bertzenaz pobrea
nekatu gabe bizitzekoak dira horien kostunbreak
ezen arratsean usatzen dira gizonak eta andreak.
- 3 Emakumeen kondizioa eskerrak diotenean
etxeko andrea karitate on bat jaun goikoaren izenean
konplimentuak luziak eta esker motzak azkenean
gauza guziak berenak dituzte iñor bixtan ez denean.
- 4 Etxe leihortzat ikus teileri leihora dagon tokira
ilunerako guziz gehienean erretiratzen baitira
entenimenduz egotua naiz ni horieri begira
haserretuta onik ez dute porroskatzen ez badira.
- 5 Beren burua asto xakur dabilta joan etorrian
emakumeak erdi biluziak kasikan larru gorrian
gizonak berriz ere mozteko aitzaki aitzur txar batzu gorrian
seinale on bat uzten baitute pasatzen diren tokian.
- 6 Lizu horietako oihalak eta oilo ebasteen atsoak
gure artean lapurkerian dabilta mutil gaixtoak
gizonak berriz ere mendi horietako behorrak eta astoak
gauza errexik senti badute arrautzan pasa eskuak.
- 7 Haragi ustel jateko ere dira pare gabekoak
gehienaz ere zakurrak dira horiek bezalakoak
izanagatik hoge egunez lurpean egontakoak
ikus aluab jaten dituzte igelak eta apoak.


**Olandeiko
Fifinen eskutik**

1936ko eta 1940ko gerlak. 9 urte gerla

- 1 Mila bederlatzi ehun ta berrogeita bost garrenean kantu berriak jartzera noa Euskal Herriko partean Miseria ta negarra zen joan den bederlatzi urtean orai gerla hau fini da eta alegeratu gaitean.
- 2 Españian hiru eta Frantzian sei, hola dira bederlatzi denbora hoietan aditu dugu zenbat nigar eta anti gizon batzuek ez zirelako burutikan ongi jantzi hobe ginuen egin balitu otso tzar batek iretsi.
- 3 Aita eta amak semeak hazi gero ereman gerlara handik hiru lau egun buruko balakin hilda lurpera mendiko pizti gaiztoen gisa konparazio batera nahigabe haundia heldu da hortik burasoen bihotzera.
- 4 Sortu giñala beste faltik ez, modu hortan hil beharra oroituztean begietara etortzen zait negarra kanoi ta obus ta aeroplana alde denetarik garra gerra sumatu zuen etsaia etzan izango alferra
- 5 Aleman hoiak saiatu dira gizon hiltzeko lanean kanoi eta obus eta abionekin beti edo gehienez behin ere ez dire ibili horiek oso bide zuzenean bainan azkenean aspertu dira Berlin galdu dutenean.
- 6 Aleman horiek, gaiztakerian ibili dira nun nahi kontrarioa agertzen zaio gaizki hasten denari Alemanian bada jendea lurperatua ugari horiek Gernikan egin dutena egin diote berari.
- 7 Mineral horren ibili ziran Bilbotikan Baionara Franco zikinak eman zioten nahi duenatarik aukera lau urte eta bi hilabete hortan gutxi gora bera gero erdiak Frantzian utzita trixte joan ziren etxera.
- 8 Aleman hoiak etziran heldu Frantzia aldera asiak Herras y borras jaten zituzten igarrak eta eziak horientzat gutxi izaten ziren sortu ahal ziren klasiak amerikanoa etorri ez balitz hilko ginuzen guziak.
- 9 Aleman horiek egina dute hamaika saio eder mundu guzia beretu nahirik gutxienez mila bider hamalaeuan kaiser izan zen, hogeita hemeretzi Hitler horiek biek ere ez dute izan uste zuten hainbat indar.
- 10 Zenbait gizonak izaten dute espantu eta grandesa begietako argi ona ta inork ikusi nahi eza mundu guzia berendu nahirik aleman ta japonesa baina etzaie ongi atera eginda zuten promesa.
- 11 Zaindari batzuk egin zirelako pixka pixka bat tronpatu soldadu asko egina zuten alemanek preso hartu presonierek bost bat urte ederki dute sofritu orain etxera egin direnak bizi dirade kontentu
- 12 Frantzian sartu ziren orduan Aleman horiek kontentu xanpañarekin eta koñakarekin egiten ziren mozkortu oiuhu ta irrirtzin ibiltzen ziran, baietz Gibraltarren sartu tenore honetan ez dute izango orduan hainbat espantu.
- 13 Ai gerlak eta zikinkeriak lau gizon direlako hoinbertze amaren seme trixterik bizia laburtutzeko Franco bat eta Hitler bertzea, Mussolini eta Queipo horien arima destinatatu omen da ifernurako.
- 14 Gizon horiek ibili ziran etsaiarekin batean hameka saio egina dute mundu gehienez kaltean horien arima lotua dago deabru tzarren katean Luziferrekin daukate gerra bere etxera joaitean.



Arrangoitzeko **GARIADOR**en bertsuak, **J. Battit TAPIA**ren ahotik, **Beñat ZAMORA**ren laguntzaz



Arbasoen izenak ikasten

Jaz,Hazilaren 11, munduko lehen gerlaren armiztiaren karietarat, plazaratu gehigarrian, argazki bat azaldu ginuen. Hor 93 Senpertar gazte agertzen ziren.Huna hemen, hoi en 53en izenak:


1 Xan Gainza
 3 Joset Albandoz ?
 11 Mixel Elissaga Dolarekoborda
 13 Jan Battit Ainciart Arretxeko Errienta
 14 Edouard ? Bastidagerekoborda
 15 Kadet Eneriz
 16 Franxua Michelena Etxenikenborda
 18 Manex Etxabe Ahortietxeberrria
 19 Oier Soudre Ixtilartea
 21 Piarres Iturriaz Olaso-Xurioinea
 22 ? Daguerre. Barraka
 23 Mattin Xipi Xabatenea
 24 Benat Zamora Loriakoborda
 27 Battita Elizondo Ortixixenea
 30 Mixel Daguerre Ibarrun-Errota
 34 Xan Etxeverry Betrienea
 37 Alexandre Usubiaga Amotz-Menta
 38 Denis Pegnegy Amotz-Arrabotxenea

41 Piarres Eneriz Errextetikoborda
 42 Laurent Lacroix Akertetxeberrria
 43 Jan-Pier Ibarra Mikeluna
 44 Mattin Larrea Muntegia
 45 Léon Bonnet
 46 Frantxua Lassaga Sarroskia
 47 Dominik Mestelan Xabatenekoborda
 48 Jan Pier Haranboure Elbarrun Haitzea
 49 Janbattit Hariscain Elbarrun Eskola
 51 Ximun Olaizola
 62 Xan Olaizola
 63 Leon ? Erebeke mutila
 64 Jan Pier Haranboure Elbarrun Haitzea
 65 Xan Hirigoyen Amotz Xipia
 69 Periko Erremundegi Peritxenborda
 70 Manex Elissaga Dolarekoborda
 71 ? Trecu Amotze
 72 Jean Barnetche Erebea
 73 Manex Harisgain Gaxintoinea Ola
 74 Gantxume Paris Zubiarte
 75 Donetxe Bikarioa(gero Arnegiko Erretora)
 76 Jean Barbier Erretora
 77 Txomin Dufau Auzapeza

Gixonkienea
 78 Cristophe Dufau Musikaria
 Gixonkienea
 79 Antton Bonnet Ibarrun Ottoloenea
 80 Mixel Carricaburu Motxoa
 81 Xan Dokelar Ferreroinea
 82 Jan Pier Harisgain Elbarrun Hiriarte
 83 Jan Pier Dufau Xanienea
 84 Antton Estecorena Pulitenea
 87 Antton Lecuona Xuailbeherea
 88 Janbattit Millox
 89 Pier Daguerre Plaza Errota
 90 Ambroise Lecuona Xuailbeherea
 93 Piarres Dolagaray Heltsozpea,
 Bastidagerreko mutila”Piale”

Berrogei Izen eskas dira:
 2,4,5,6,7,8,9,10,12,17,20,25,26,
 28,29,31,32,35,36,39,40,50,52,53,
 54,55,56,57,58,59,60,61,66,67,68,
 85,86,91,92.

Oraino zombait pertsona ezagutzen baldin badituzue, deitu André Harisgain,
 Gaxintoinea : Tel. 05 59 54 16 78



«Hatsaren Poesia»ren eguna iragan da martxoaren 21ean

«Hatsaren Poesia»ren eguna iragan da martxoaren 21ean, Senperen, Oxtikenean, neguaren zirimirri eta udaberriaren basadan zuhaitz lore xurien usainen erdian. Eguerditan Euskal Herriko 40 olerkarik idatzitako liburua aurkeztua izan zen. Liburu hori ez luke ez lehena ez azkena izan nahi, zeren xedea baita urte guzietan Euskal Herriko ahal bezainbat Poesia idazle guziekin, olerki bilduma berri baten agertzea eta hunen, dohainik, Euskal Herriko Biblioteka gehienetarat zabaltzea.

Bistan dena ez ziren Olerkari partehartzaile guziak hor, Senperen izaiten ahal. Hala ere zonbeit ikusi ahal izan ditugu: Jon Cazenave, Zigor Kepa Akixo, Andoni Salamero, Josanton Artze, Manex Lanatua, Joan Mari Irigoien, Daniel Landart, Eneritz Abruza, Gerardo Markuleta, MariPi, Aurelia Arkotxa, Amaia Lasa, Manex Bergara, Jean Louis Davant, Leire Mendiburu, Enaut Etxamendi, Marilu Dupouy, Daniela Pilote, Auxtin Zamora...

Oren batean bazkaria eta gero olerki irakurketa hun-kigarri bat, 40 bat bazkalza-leen artean. Arratsaldean, Urdazuriko erreka oinez iraganik, olerkari guziak elkartu ziren Ibarungo Inarrian, Manex Erdozaintziri, bihurtu ikusgarriaren segitzeko. Bordaxuri taldeko Txomin Heguy, Pantxoa Cousteau, Helena Estekahandik, Karlos Gimenezen musika arraroarekin, barne barnetik eman baitzuten sentitzera noraino



Euskal Herriko berrogei olerkarik idatzitako liburua aurkeztua izan zen martxoaren 21ean Senperen. Liburua ez da salgai izanen, baina Euskal Herriko biblioteka gehienetarat zabaltzea espero da.

zoan Manex Erdozaintziren herrimina.

Eguna bururatu zen Oxtikenean: olerkari guzien azken elgarretaratze batekin, eta bistan dena, heldu den urtean berriz elgar ikustearen agiantzak hor hitzeman zirela.

Liburu hori ez da salgai liburu-saltegietan, bakarrik Hatsa elkarteari eskatuz eskura dezakezue. Hatsa elkarte - Oxtikenea - 64310 Senpere 05 59 54 11 43 (arratsetan).



SOKOA

**EUSKAL HERRIAN EKONOMIAK
EUSKARA ETA KULTURA
LAGUNDU BEHAR DITU**

BULEGOKO ALKIAK ETA BURDINEZKO APALAK

Frantziako estatuan, bulego eta kolektibitateko alkien lantegi garrantzitsuena, Hendaian, 177 langilerekin.

64700 HENDAIA

Tel. (33) 05 59 482 482 - Fax (33) 05 59 482 472

MALERREKA-BAZTAN

Baztan-Errekako hogeigarren Laxoa txapelketa hasi da igande honetan

Hamar talde ariko dira abuztuaren 1ean jokatuko den finalean nagusitu asmoz

TTIPI-TTAPA

Hamar taldek parte hartuko dute igande honetan hasi den Baztan-Errekako laxoa txapelketa. Joan den urtean, Iruritako plazaren mendeurrena ospatzen bazen, aurtengoan txapelketa ospatzen hasi zenetik hogeigarren urtea beteko da.

Gogoratu behar da 70. hamarkadaren akabailan laxoa ez zela kasik ikusten gure herrietan, bestetako partiduren batean ez bazen. Orduan sortu zen Laxoa Elkartea eta orduan jokatuko zen lehendabiziko txapelketa. Hogeitau beranduago, laxoak bizirik segitzen du eta ez da gutti.

**LEHENDABIZIKO FASEAN
HAMAR TALDE BI
MULTZOTAN BANATUAK**

Gainera, osasunez bizi dela erraten ahal da, joan den urtean baino



Abuztuaren 1a arte, kasik astero izanen dira laxoa partidak inguruko plazetan

Artxibokoa

bi talde gehiago plaza-ratuko baitira oraingon: Elizondo eta Iruritako hirugarren taldea. Elizondo eta Iruritako hiru taldeekin batera, Doneztebeko hiru taldeak, Oizko biak eta Arraiozkoa ariko dira.

Beti bezala, faborito nagusia Doneztebe A taldea izanen da, Javi Mariezkurrena, Peio Iribarren, Patxiku Ganboa eta Luismi Apezetxearekin. Laukote hau bere hamekagarren txapelaren bila joanen da

(Doneztebek hamahiru ditu guzira). Arraioz finalean izan zen iaz eta aurtun ere txapelaren bila aterako dira. Bertze taldeak ere lehiarako prest egonen dira, noski.

Aipatu bezala, txapelketa igande honetan

hasi da eta, eguraldiak laguntzen badu, finala abuztuaren 1ean jokatuko da. Joan den urtean bezala, aurtun ez da Koparik jokatuko. Hori bai, hamar taldeak bosna taldeko bi multzotan banatu dira. Multzo bakoitzean denek denek kontra jokatuko dute, joan eta itzuliko partiduetan. Multzo bakoitzeko lehendabiziko lau sailkatuak final laurdenetan ariko dira: A multzoko lehendabizikoa, B multzoko laugarrenaren aurka; Ako bigarrena Bko hirugarrenaren kontra; Ako hirugarrena Bko bigarrenaren kontra eta Ako laugarrena Bko lehendabizikoaren kontra. Lehendabiziko kanporaketak ekainaren 27an eta uztailearen 4an jokatuko dira: finalerdiak uztailearen 17 eta 25ean eta finala, abuztuaren 1ean.

Loregintza ikastaroa antolatu du Ezpelura Emakume elkarteak

Izen emateko epea apirilaren 15ean akituko da

Malerrekako Ezpelura emakumeen elkarteak loregintza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa asteartetan ematen da, arratsaldeko 3etatik 6etara eta 24 orduko iraupena izanen du. Ikastaroa apirilaren

20an hasiko bada ere, izen ematea apirilaren 15 baino lehenegin behar da Malerrekako Mankomunitatean. Horretarako Begoñari deitu behar zaio 948 45 1746 telefonora. Ezpelura elkarteko baz-

kideek 3.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 5.000 pezeta.

Udaberrian sartuak gaudenez, loreekin egiten ahal diren apaingarri lanak eta gisako kon-
tuak ikasiko dituzte.

Malerrekako hainbat jendeke parte hartu zuen Korrikan

IBAN ISASI

Martxoaren 23an Korrika pasatu zen Malerrekatik. Ezkuratik sartu eta Zubietan barna, hainbat jendeke aritu zen lasterka lekukoaren gibeletik. Iturenen ere jendetza haundia elkartu zen laister egitera. Iturengo Hartzak eraman zuen lekukoa Ibintza kultur taldearen kilometroan. Kamioko pisuetan ha-

si eta Ituren auzoa bukatu arte izan zen kilometroa. Aurtiztarren artean bertze kilometro bat erosi zuten, Aurtizko sarreratik Iturenara. Zortzi joaldun ere izan ziren joareak jotzen. Elgorriaga eta Doneztebetik igarondotik, Sunbillatik Bortzirietara joan zen Korrika, arrats partean. Sekulan baino jende gehiagok parte hartu du Malerrekako.

GOIZUETA

Baita aurten ere!

Eskolako DBH-1 eta DBH-2ko neskek dena irabazi zuten Nafarroako kantu txapelketan

ESTEBAN AROZENA

Ikasturte honetan herriko eskolan DBHko lehenengo eta bigarren mailan ikasten ari diren neskek iazko Nafarroako euskal kantu txapelketako sari gehienak eskuratu zituztenez, kasualitatearen bat izan zitekeenaren ustea edukiko zuen baten batek. Aurtengo edizioan lehiaketa berean gertatu dena ikusita, zalan-tza horiek ederki desagertu izanen dira.

Aurretik hiru kanporaketa egindakoan martxoaren 28an ospatu zen Iruñean aipatutako txapelketaren finala, 22 talde, bikote edo bakarlarik bertan zirelarik, hauetatik lau Goizuetako eskolakoak eta denak herrikoak, Aranoko Maider Ansa izan ezik. Ia hiru ordu iraun zuen jaialdiaren ondoren etorri zen epai-

mahaiaren erabakia: gaztetxoaren multzoko talde txapelduna, Goizuetako Haizea; bikote irabazlea, Naiara Arozena eta Maider Ansa osatutakoa; eta bakarlarik onena Maider Ansa bera. Naiara eta Maider taldeko kide zirenez, hirutan igo zen aranoarra tabladu gainera, eta bitan goizuetarra. Esan behar da, bi hauetatik gain Izaro Goikoetxeak, Alaitz Eskuderok, Itxaso Lujanbiok, Alaitz Azurmendik, Ixiar Lujanbiok eta Zuriñe Lujanbiok kantatu zutela Haizea taldean. Garaipen hauek lortu ahal izateko ezinbestekoa izan zen Arantxa, Ainhoa, Ibai-1 eta 2, Hodei, Eneritz eta Xabi musikarien laguntza. Aipagarria da Haizea taldea eta Maider eta Naiara bikotea ekainaren 19an Arrigorriagan



Haizea taldeak taldeka, Naiara Arozena eta Maider Ansa bikoteka eta Ansa berak bakarrik txapela irabazi zuten. Ttikien taldea ere ederki aritu zen.

Argazkia: Artxiboa eta Asier

eginen den Euskal Herriko txapelketan kantatzeko aukera izan dutela.

Azkenik esan, ttikien multzoko herriko taldeak ere ederki aski kantatu zuela, baina txapelketa guziko gaztee-

nak izanik, ez zuten sarriarako aukerarik izan.

Nerabezaroko aldaketei buruzko hitzaldia

Adoleszentzia edo nerabezaroko aldaketei buruzko hitzaldia ema-

nen dute apirilaren 13an Izargain taldeko siko-logoek. Gizarte Zerbitzuko prebentzio programaren barreneko ekitaldi hau Guraso Elkarteko lokalean izanen da arratsaldeko 7etan.

ARESO

Sokatira taldeari harrera egitea eskatu du Udalak

Nafarroako zenbait ordezkari politikoei

JUANA M^a SAIZAR

Munduko sokatira txapelketa 600 kilotan txapeldun eta 560tan bigarren suertatu den sokatira taldeari, munduan izan duen arrakasta haintzat hartzea eskatu zaio Nafarroako ordezkari politikoei, martxoaren 23ko udal batzarrean ahobatez onartu zenez. Sokatira taldeari harrera eta onospena ematea eskatu zaio legebiltzarreko eta eledunen batzarreko kideei.

◆ **Pakea eraikitzen** lemapean plaza zahar-

rean konzentrazioa izan zen martxoaren 26an.

◆ **Egur lotea** nahi duenak Udaletxetik zenbakia hartzea pasa behar du.

◆ **Eskolako umeek** Donostiara eskurtsioa egin zuten. Aquariuma eta Txiki-Park bisita-



Munduko txapeldun izan da sokatira taldea.

tu zuten. Nahiko jolas-tu ondoren herrira bueltatu ziren.

◆ **Aberri Eguna** prestatzeko bilera egin zen herrian.

Lizarra-Garaziko akordioari buruzko mahainguruak 120 lagun bildu zituen

EA, EAJ, EH eta Elkarriko ordezkariak aritu ziren solasean

JOSEBA AZPIROZ

Martxoaren 26an, ostirala, arratsaldeko 8etan, Lizarra-Garaziko akordioaren inguruko mahai-ingurua izan zen herriko zineman. Bertan, Pernando Barrenak (EH), Begoña Errastik (EA), Markel Olanok (EAJ) eta Maixux Rekartek (Elkarri) parte hartu zuten. LAB eta ELA sindikatueta eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetako ordezkariak ez ziren azaldu. Halerere, Iñaki Zabaletak bideratutako hitzaldian, aipatutako lau ordezkariak ongi baliatu ziren akordioaren sorrera, esanahia eta helburuak argi azaltzeko; baita akordioaren aurrean zenbait jarrera –komunikabideak, Estatuak, partidu politikoak...–



aztertzeko ere. Gonbidatuak oso pozik azaldu ziren jendearen partehartzearekin –120 lagun– eta orohar ekitaldiaren martxarekin.

Jende ugari arretaz aditu zuen mahaiakideek Lizarra-Garaziko akordioari buruz emandako azalpenak.



Euskal Herritarrok plataformaren aurkezpena

Martxoaren 27an, Leitzako Euskal Herritarrok plataformari atxikimendua eman dioten ehun lagunetatik hauek bildu ziren argazki bat ateratzeko, apostu politiko honetan daukaten konfidantza jendaurrera plazaratzeko asmoz.

flash

❖ Euskara teknikariak

Basaburua-Imotz eta Larraun-Araitz esku-aldetako euskara teknikari izateko bi lanpostu betetzeko hautaketarako frogak maiatzaren 11n, goizeko 9etan, herri-liburutegian hasiko dira.

❖ Inersoren bidaiak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik jakinarazi dute, aurtengo urritik hurrengo ekaina arte Inersoren bitartez bidaiatu nahi duten pentsionistek, apirilaren 15a baino lehen izena eman beharko dutela aipatutako zerbitzuaren egoitzan. (Osasun Etxea, telefonoa: 948 610 617).

❖ Korrika

Jende asko bildu zen Korrikan, euskararen aldeko lasterketa eta besta haundi hau Leitzatik igarozen egunean, eguraldi ona lagun.

❖ Abel Barriola finalean

Eskuz eskuko norgehiagoketan espezialista bihurtzen ari da Abel Barriola, momentu honetan esku pilota profesionalean ari den leitzar bakarra. Asegarceren bigarren mailako eskuz eskuko finalera ailegatu da eta adituen ustez, irabazteko aukera asko izanen ditu. Animo!

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

Margari Estetika Zentrua

- Era guzietako tratamenduak
- Frekuentzia altuan
- Baporea • Ozonoa

© 948 510205-608 970179 • Huarte Gotzaia-Oialdegain • LEITZA

BAZTAN

Aurtengo 'Hamabi ordu eskuaraz' maiatzaren 1ean iraganen da

Santiago Bidea gaiaren inguruan antolatu du Baztango dantzari taldeak

TTIPI-TTAPA

Hamabi Ordu Eskuaraz Baztanen izenburupean, Baztango dantzari taldeak antolatuta, heldu den maiatzaren 1ean ekitaldi ezberdinez osatutako eguna ospatuko da. Egun honen helburuen artean, Baztanen euskararen erabilpena bultzatzea, arlo desberdinetan Baztanen lan egiten duten taldeak elkartzea eta balleko ohi-turak eta lehenagoko bizimodua ezagutzera ematea daude. Horretarako, Santiago Bidea aukeratu dute antzespenaren gai nagusi bezala. Eraberean, gai hori izanen du hamabi eta hamasei urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako narrazio labur lehiaketak. Hau prestatzeko Kanboko Xalbador ikastetxea eta Leka-ozko institutuaren laguntza izanen dute.

Ekitaldiak goizeko 10etan hasiko dira argi soinuekin. Herriko plazan mutil dantzak eta ondotik zikiro-jatea izanen da Merkatu zelaian. Bazkal ondotik, 300 emakumek dantza emaldia eskainiko dute Elizondoko pilotalekuan. Honetaz gain, Arizkunenean iñauteari buruzko margo erakusketa erekiko da apirilaren 15etik maiatza-



Baztango EHren aurkezpena Amaiurren

Amaiurko oroigarriaren inguruan Baztango Euskal Herritarrok bultzatzen duten taldekideek proiektu berri honen inguruko azalpenak eman zituzten martxoaren 21ean. Mikel Altzuar arizkundarrak, Xabier Ballarena erratzuarrak, Txus Barrenetxe lekaroztarrak, Juan Martin Aleman amaiurtarrak, Estitxu Pierola almandoztarrak, Xabier Iparragirre beartzundarrak eta Joseba Otondo elizondarrak hartu zuten hitza eta Euskal Herriaren momentu historiko honen garrantzia azpimarkatu zuten.

ren 2ra, Iruñeko Kaute-rak elkartearen laguntzaz. Gan den urtean bezala, egun hortako «Baztango Oihartzuna» aterako da, balleko gertakizunen berri emateko asmoz.

12 ordu eskuaraz ezagutzera emateko bidea eta web orria prestatzeko asmoa dago. Kiro-lak ere izanen du bere tarte eta maiatzaren 2an 12 Orduz Korrikan izanen da Lekarozen.

Elizondo eta Lekarozko igerilekuetan udako zerbitzua emateko lehiaketa deia egin du Balleko Udalak

1999 eta 2000. urteko uda denboraldietan Elizondon dauden udal igerilekuetako mantenimendu eta garbiketarako zerbitzua kontratatzeko lehiaketa deialdi publikoa egin du Balleko Etxeak. Lana hartzen dutenek, sar-rerren kontrola eta os-

tatuaren ardura ere euren esku izanen dute.

Eraberean, aurtengo udan, Lekarozko igerilekuetako garbiketa eta mantenimendu zerbitzurako ere lehiaketa deitu du Balleko Udalak. Eskaintzak apirilaren xx baino lehen aurkeztuko dira.

flash

Kontsumitzaileen bulegoa

Iratxe elkarteak kudeatzen duen kontsumitzaileen udal bulegoak 179 lagunen kezka aztertuzituen iaz, Mikel Bezunartea ardura-dunak plazaratutako balantzearen arabera. Erreklamazio gehienak Posta bulegoak eta zenbait baserrietako bideen egoerak sortu dituzte. Bulegoa hamabortz egunetik behin zabaltzen ditu bere ateak Baztanen.

Eskolak modaltzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta musika eskolak moldatzeko edo zabaltzeko dirulaguntza deialdira zenbait lan aurkeztuko ditu Balleko Udalak: Arraiozko eskolako teilatuaren moldatzea, Erratzukoaren patioa berritzea, Gartzaingoaren kanpoaldea konpontzea eta Elizondokoaren kalefakzioa berritzea eta erabilera aunitzeko eremua moldatzea.

Lanak Berroetan

Berroetan egin beharreko zolaberritze eta zerbitzu lanen lehendabiziko fasea Azpiroz eta Saralegi eraikuntza enpresak egingen du 10.234.905 pezeta-ren truke. Lanen zuzendaritzat teknikoa Gabriel Silvak egingen du 610.000 pezetatatan.



BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176



MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

BAZTAN

Lekarozko gazteendako aterpea martxoaren 23an zabaldu zen

178 lagunendako lekua eskainiko du urte osoan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 23an zabaldu zen ofizialki Lekarozko gazteendako aterpea. Kaputxinoen Kolegio zaharrean moldatau du aterpea Nafarroako Gobernuak, institutuaren ondoan. Azkenean 200 milioi pezeta inguruko inbertsioa egin da eta horren ondorioz, Europako Aterpe Sarearen barnean egonen den erakuntza egin da, Sedena kudeatuko duena.

Inaugurazio ekitaldian Calixto Ayesa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamenduko kontseilaria; Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Javier Trigo zuzendaria eta Ana Elizalde zuzendariordea (sortzez elizondarra) izan ziren Nafarroako Gobernuordezkarri gisara.

Aterpeak 128 lagunendako ohatzea eskaintzen du modu egonkorrean eta behar den berrak, berrak 50 pertsona ahal dira. Urte osoan zabalik egonen da.



Ikastolako zuhaitz landatzea

Martxoaren 14an zuhaitzak landatu zituzten Baztan ikastolako ikasle, guraso eta irakasleek Bagordi inguruko herri lurretan duten basoan. Balleko Udalak emandako bertako haritz landareak sartu zituzten.

Zortzi herritako argiak berritzeko 38 milioi pezetako aurrekontua

Balleko Udalak 38,3 milioi pezetako inbertsioa egingen du zortzi herritako argiak berritzen. Lan hau Hirurteko Azpiegitura Planean sartu da, beraz, Nafarroako Gobernuaren laguntza izanen du. Proiektuak 35.452.611

pezetako aurrekontua du. Bertze gastuak gehituta 38.308.820 pezetara ailegatzeko da aurrekontua. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, berriz, 26 milioi izanen da. Proiektu honekin, Amaiur, Azpilkueta,

Elbete, Almandoz, Irurita eta Oronozko Zozaia auzoko argiak berrituko dira.

Bertzalde, beira edo kristala, pilak eta papera biltzeko zaborontziak erosteko lehiaketa deia luzatu du Balleko Etxeak.

Portzontzia

Iñigo Arista Saria San Francisco Javier ikastetxeko ikasle batentzat

Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko Myriam Jimenez Iñigez seigarren mailako ikasleak «Iñigo Arista» erakundeak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatutako lehiaketan idazlan baten bitartez saria lortu du. Nafarroako ikastetxeen artean egiten dituzten elkartrukaketa bideien inguruan (Elizondotik Erriberara, adibidez), idazlanak eta marrazkiak egin behar izaten dituzte ikasleek. Aurtengo edizioan 118 ikastetxe eta 4.000 ikasle parte hartu dute lehiaketa honetan eta horietatik 25 bertzetik ez dira sarituak izan. Beraz, zorianak Myriam!



Myriam JIMENEZ IÑIGEZ

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

SARA

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa bururatu da

Berrogei bikote aritu dira ortziralero

ANA MARI, MARTINE ETA FREDERICK

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa bururatu da: hila-bete batez 40 bikote ortziralero aritu dira. Huna hemen hiru mailetako garaileen zerrenda.

Goi mailan, xapel-dun Alain Lafitte eta Jean Marie Albistur; bikote honek Santillana del Mar, Santander ondoko herrian asteburu baten irabazleak izan dire. Xapelduordeak izako bikote bera: Kako Goietxe eta Jean Marie Pradere. Hirugarren, Jean Marc Aspirot eta Mixel Etxeberri. Laugarren, Jean Michel Irazoki eta Xabier Tapia.

Bigarren mailan, irabazle Pettan Elizalde eta Beñat Etxegarai, bildotsa izan zuten sari gisa. Bigarren, Manex Bergara eta Antton Bidegain. Hirugarren mailan,



Mus txapelketako irabazleak elgarrekin bildots errea bazkaldu zuten.

Argazkia: Mixel Mixelena

irabazle Sandrine Etxegarai eta Mirentxu Azkarraga gazteak. Bigarren Fabienne Goietxe eta Ramuntxo Berruet.

Muszaleek bildots errea bazkaltzeko aukera izan zuten final egunean, baita Jose Angel Elizondo gazte-

aren musikaren laguntzarekin dantza egiteko.

Beti Gazteren urteko biltzarra

Martxoaren 17an, Beti Gazteko lagunak Pullman ostatuan bildu ziren urteko biltzar nagusia egiteko. Bulegoan

ez zen aldaketarik izan. 100 lagun elkartu ziren honen kari, baita ondoko otuntza goxoz gozatzeko. Herriko 115 pertsona dira elkarteko bazkide eta asteazkeno 20 bat biltzen dire horien gelan, bai musegan aritzeko, bertzeak tri-

Haurren besta

Euskal Haziak, eskola pribatuetakoko elebidun adarrak bere urteko emankizuna, Haurren Besta, apirilaren 11n, igandearekin antolatuko du Saran. Elkarteak buraso, irakasle, eskola buruak biltzen ditu; bere emandia jendeari eskainiko du arratsaldeko 3etan Polikiroldegian.

Korrika

Iragan martxoaren 20an pasatu da Korrika Saratik. Hitz ordua goiz goizetik eta giroa hotza izanagatik, jende andana bat ohea utzi eta kanporea atera da euskararen alde lasterka ibiltzeko. Plazatik iragan den Gau eskolaren eta ikastolaren kilometroak bildu du jende parrasta haundiena.

kotatzen, lehengo gazte denborako historiak kontatuz.

Bertzalde, apirilaren 28an, Jean Pierre Borda eta bere emazteak Beti Gazteko lagunak gonbidatzen ditu krakada batera arratsaldeko 3etatik goiti.

Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egr idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA

Asleartetik ortziralera Betatik atzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

© 948 452121 • LEKAROZ

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

SENPERE

Yplon lantegiko zuzendaritzaren jukutria salatu dute langileek


Hirurogei lanpostu jokoan daude Lizardiako kosmetika lantegian

FRANCK DOLOSOR

Yplon taldeko Senpereko Delphia kosmetikako lantegiaren CFDT sindikatuko ordezkariak kexu agertu dira zuzendaritzak enpresa ixtea erabaki delako. Ixteko erabakia aspaldikoa dela adierazi zuten, eta alde horretatik zuzendaritzak egingako urratsak salatu. «Joan den urrian enpresa ezin hobeki zihola adierazi ziguten, baina une berean, desodoranteen ekoizpen saila Belgikara eraman zuten. Zentzurik ez zuen ekimenak, sail horren merkatua Espainiakoa baitzen; hots, hemen bertakoa». Gainera, joan den hilabetean Senpereko zuzendaria kanporatu zuten eta Auxerretik zetorren zuzendari bat izendatu.

HIRU HILABETEKO EKOIZPENA AITZINDUA DUTE LANGILEEK

Azken asteotan, berriaz, almatzenak betetzeko ekoizpenean aritu dira langileaketen gabe. «Orotara hiru hi-



Dauris Sueur, Jean Baptiste Etxeto eta Alsouet, CFDT sindikatuko ordezkariak.

Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

labeteko stock-a egin dugu. Gisa horretan greba egin genezake, baina enpresak ez luke ondoriorik jasanen, dena aitzinetik pentsatua baitzuten». Lantegia ixtiko zenaren susmoa bazutela adierazi zuen CFDTko ordezkariak, baina hori eragozteko ez da deus egin. «Enpresa batzordearen bilera-rik ez da izan eta lantegia ixteko erakutsita-

ko asmoa prentsaren bidez jakin izan genuen». Senperen 1984tik honat lanean ari den lantegia itxiko badute ere, ez dute ekoizpena geldituko, Britainia aldeira eramanen baizik. Gisa horretan, 60 langileetarik 26ri harat joateko proposamena egingen diete.

Jean Baptiste Etxetok, CFDTko idazkari nagusiak, erabakia

atzera botatzeko ahaleginak egin beharra azpimarratu zuen.

«BIDE JUDIZIAL, POLITIKO ETA FISIKO GUZIAK ERABILIKO DITUGU»

Bide judizial politiko eta fisikoak erabilitzeko prest agertu ziren enpresako langileen %70 ordezkaten duten sindikatuko ordezkariak. Izan ere, lantegiko 60 enpleguez gain,

bertze 40 zeharkako enplegu desagertzeko zorian dira: «Senpereko herriarentzat gogorra izanen da» zioen Etxetok. Honela, Senpereko Herriko Etxean udal kontseilu berezi bat egiteko asmoa dute laster, erakutsi beharreko jokamoldea aztertzeko. Yplonek jaso izan dituen dirulaguntzak zenbatekoak izan diren ere ikasi nahi dute.



Sagarnotegia

Telefonoa Iparraldetik
00. 3443555851 - 00. 3443550281

Telefonoa Nafarroatik
943. 555851 - 943. 550281

Martindegi auzoa, 29
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

Kutxa Kutxa Kutxa

Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa

Kidetza berri bat!

Kutxa 7, Portuko KARRIKA-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

ZUGARRAMURDI

Ospitaleko etxea herriarena da azkenean

Hustu eta garbitu ondotik, teilatu berria emanen zaio

KORO ETA MARGARI

Aspaldiko urtetan Herriko Etxetik atera den berri onena biltzen dugu hemen: Ospitaleko etxea herriarena dela azkenean. Etxe eder hau ospitala, eskola, oilategia, kuartela eta biltegi bezala erabili ondotik orai arras egoera txarrean dago. Hala izanda ere, arazoa zen ez zela moldatzen ahal etxe hunen nagusia aspaldian sortutako fundazio bat zelakoz, gaur

egun indarririk ez daukan fundazio bat.

Aspalditik Udalak erosteko asmoa zeukan bainan dirudienez gestioak ez ziren batere errexak eta urte aunitz gan dire eresketa horren ondotik.

Azkenean herriak eskuratu ahal izan du eta premiazkoak diren lanak egiten hasiak dire: etxe guztia hustu eta garbitu, ondotik teilatu berria emateko. Hortik aintzina zertan erabiltzeko ideia politikak ba omen

dire, baina dirulaguntzen zain beharko dute.

Akelarre gaupasako egitaraua zehaztua

Dagoeneko finkatua dago Akelarreko gaupasa. San Juan eguneko aintzineko larunbatean egiten denez, aurten ekainaren 19an izanen da eta egitaraua betikoa: lehenbiziko kontzertu bat (aurten goan Kaos Etiliko taldearekin), eta ondotik dantzaldia (Kukumiku taldearekin). Ez dire an-



Ostatu eberria plazan


Gan den martxoaren 12an bertze ostatu bat edeki zen herrian, plazan dagoen Maxintxenea etxean «Marixan» ostatua edeki baita. Suerte ona izan!

tzerkia eta ioaldunak faltako. Beti bezala bisitari aunitz espero dira

egun horretan eta herriar guzien laguntza beharko da.

ASCAT  
Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA

ETXEBIZITZA ASEGURUA



zure etxebizitzako zaindaria

Zure etxebizitzan behar dituzun garantia guztiak dituzu gure etxebizitza aseguruan


ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450266
DONEZTEBE



AUTO ESKOLA

Saskaitz plaza
Tel.: 948 580 077
ELIZONDO

EZKONTZAK

Jose Antonio Galardi Gaztañaga eta **M^a Jose Txoperena Alzuagari**, Errenteria eta Lesakakoa, martxoaren 6an.
Miguel Bailon Ugarte eta **Cristina Urtasun Jaimerena**, Elizondo eta Iruretakoa, martxoaren 13an.
Oscar Elorza Villanueva eta **Miren Edurne Salaberri Telletxea**, Doneztebe eta Oronozkoa, martxoaren 19an.
Juan Oiartzabal Serrano eta **Natalia Zamora Rico**, Bera eta Irungoa, martxoaren 20an.

JAIOTZAK

Joel Gil Goienetxe, Lesakakoa, martxoaren 10ean.
Julen Elizetxe Elizagoien, Amaiurkoa, martxoaren 10ean.
Lorentxo Kerejeta Ballarena, Elizondokoa, martxoaren 11n.
Naiara Larroke Altzuarte, Almandozkoa, martxoaren 12an.
Paulo Zumalde Ramos, Berakoa, martxoaren 15ean.
Beñat Canflanca Alzelai, Leitzakoa, martxoaren 14an.

HERIOTZAK

Maria Ilarregi Ziga, Lesakan, martxoaren 8an, 92 urte.
Carmelo Agirretxe Ezama, Lesakakoa, martxoaren 12an, 67 urte.
Benedicto Agirre Lairez, Etxalarkoa, martxoaren 16an, 80 urte.
Aniceta Apeztegia Legasa, Lesakakoa, martxoaren 25ean, 92 urte.
Jose Antonio Etxebertz Dorremotzea, Erratzukoa, martxoaren 18an, 57 urte.
Mari Carmen Garralda Telletxea, Iturengoa, martxoaren 27an, 74 urte.
Martin Aleman Gaztelu, Arraiozkoa, martxoaren 28an, 98 urte.
Francisco Jimenez Pasquier, Berakoa, martxoaren 26an, 84 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen
lehenak
izan nahi
dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA

ZURE EZKONTZ-ERREPORTAIAN AUKERA BEREZIA

- Ordubate eta laurdeneko zinta originala
- 2 kopia oparizat + PREVIA
- Muestra konpromezurik gabe

Tel.: 943 61 83 14 • Hondarribia karrika z/g • IRUN



ttipi-ttapa
internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Iris Floristeria

- ✗ Landare zentroak
- ✗ Udaberriko lore eta landare mota guztiak zure esku
- ✗ Edozein ospakizunerako lore erramuak



Jaime Urrutia 21 • © 948 58 10 53 • ELIZONDO

KONEKTATU internetera

Urtebeteko konexioa
gehi
posta elektronikoko
helbidea:
**10.000 Pta. +
BEZ**

TTIPI TXARTELA izateagatik
INTERNETera konektatzeko aukera ezin
hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin
urtebeteko konexioa gehi posta
elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan.
Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

(+34) 948 631188

HURBILETIK.....

1 Inaxio Errandonea 1964ko uztailearen 30ean jaio zen Alkaiagan

2 Gazte-gaztetan egin zuen debuta profesional gisara. Geroztik lau txapel lortu du bikoteka eta bakarka ere hainbat finaletara ailegatu da.

3 Orokorrean kirolak ikustea gustatzen zaio eta golfean ere aritzen da asti pixko bat duenean.



Inaxio Errandonea eta Asier Olaizolak eskuz binakako txapela janztea lortu dute aurten: Errandoneak Euskal Herrikoa, Nagorekin batera eta Olaizolak Espainiakoa, Elkororekin. Inaxiorentzat binaka lortzen duen laugarren txapela izan da. Ohituta dagoela pentsatzen ahal da, baina Inaxiok ilusio handia sentitu du txapel berri ho-

 Inaxio ERRANDONEA Alkaiagako pilotaria

“Gehien gogoratzen den txapela azkena izaten da beti”

nekin: «Gehien gogoratzen den txapela azkena izaten da, beti. Lehendabizikoa atera nuela urte dexente badire eta pixko bat ahanzten joaten dira detaileak. Azkeneko honek izugarriko ilusioa egin zidan. Txapelak irabazteaz ez zara inoiz aspertzen».

Asier Olaizolarentzat, berriz, lehendabiziko txapela da eta pozez gainezka hartu du. «Profesional mailako lehendabiziko zapela irabazi dut. Espainiako txapelketa irabazteak beti ilusio handia egiten du eta gainera duela hiru urte debutatu nuela ikusita».

Kontuan hartu behar da, ia sei hilabetez min hartuta egon zela iaz Goizuetakoa eta txapelketa hasi zenean, ez zegoela bere sasoi punturik onenean. «Sei hilabetez lesionatuta egon eta gaizki ibili naiz eta gutxienez, 1999a oso ongi hasi dut, txapela irabazteak hori dena ahazteko balioko du».

Biek txapelketa borobila jokatatu dute. Inaxio Errandoneak dioenez, «guk lehenbizian ez genuen gehiegi kontatzen txapela lortzeko, baina pausoka-pausoka joan gara hobetzen. Lehendabiziko partiduan Nagorek problemak izan zituen bere eskuan eta ez zen hasi jokatzen. Partidu hori galdu genuen eta bat galduta nahiko zaila ikusten genuen finalerdietan sartzeko. Gero, erran bezala, hobetzen joan gara eta Nagore jokoan sartu da. Lehendabiziko helburua, finalerdietan sartzea, lortu genuen. Hor bi partidu

nahiko onak egin genituen eta finala ere bai».

Asier Olaizola ere gustora dago Espainiako txapelketan egindako lanarekin. «Elkororekin jendeak konfidantza handia zuen baina nirekin ez, zalantza asko izan ziren txapelketan sartzeko ere. Sartu ninduten eta erakutsi dut hor egoteko posibilitadea badudala. Txapelketa nahiko ona egin dugu biek, Aitor eskuetatik juxtu xamar ibili den arren».

Bi txapelketa, bi bikote txapeldun... Asegarce eta Aspe enpresen arteko ezin konponduak ez du atsedunik hartzen eta pilotazaleei galdera hori gelditzen zaie: zein da momentuko bikoterik onena? Errandonearentzat zaila da galdera hori erantzutea. «Gure

Hameka urteko aldea dute Inaxio Errandonea alkaiagarrak eta Asier Olaizola goizuetarrak. Inaxiok 34 eginak ditu eta Asierrek 23. Gibelesko koadroetan segurtasunaren irudia da Alkaiagakoa eta urte luzetako esperientzia du bizkar gainean. Bi eskuekin dotore moldatzen da. Goizuetakoa, berriz, aurreko koadroetan bizkor mugitzen da. Ez da errematatzaile peto-petoa, baina atzera jotzen duenean, pilota ziztuan ateratzen da bere eskuin eskutik. Berari tantua sartzea, ordea, ia ezinezko lana bihurtzen da parean duen aurrelariarentzat. Bi pilotari, bi txapel eta bi estilo: klasikoa eta modernoa, heldua eta gaztea. Biak aurrez aurre jarri ditugu.

TESTUAK: AITOR AROZENA

ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA



BI TXAPELDUN

 **Asier OLAIZOLA** *Goizuetako pilotaria*

"Zalantzak uxatu eta hor aritzeko moduko pilotaria naizela ikusi da"

lana pilota partiduak jokatzea da, erraten digutenarekin eta erraten digutenaren kontra. Aspekoein jokatu behar dugula erraten badigute, gustora jokatuko dugu. Aspaldian alde bateko nahiz bertze pilotariak istilu hau behingoz moldatzea eskatzen ari gara eta ea txapelketak bederen batzuk bertzeen kontra jokatzen ditugun. Enpresek hori paratzen badute nik gustora jokatuko dut, baina ez dakit, beraien artean nahiko istilu badaude eta».

Bi bikote txapeldunen arteko norgehiagoka jokatuko

zela eta buila dexente somatu zen finalen ondoko astean, baina hemen ere ez dirudi aintzinbiderik dagoenik: telebis-tak eta publizitatea bai edo ez, irabazleek eraman beharreko diru kopurua... bik konpondu nahi ez dutenean, zaila da konpontzea.

Olaizolaren ustez zaila da partidu hau jokatzea. «Inaxiok esan duen bezala, lehenbizi bi enpresek elkarrekin konponketa batera ailegatu beharko lukete. Gure aldetik ez litzateke inolako proble-

marik egonen eta gainera, polita izanen litzateke, bai guretzat jokatzeke, bai jendearentzat ikusteko. Orain, zaila izango da enpresak arreglo batera ailegatzea».

Eskuz banakako txapelketa buruan

Zoritzarrez, ez dirudi bikoteka jokatu den txapelketan akautuko denik afera. Jokoa den eskuz banakako txapelketan ere, manimanoan, alegia, bi enpresetako pilotariak bakoitza bere aldetik jokatzen ari dira.

Inaxio Errandoneak igande honetan hasiko du bere ibilbidea Asegarceren koadroan eta Agirre bizkaitarra izanen du kontrario. Faborito garbia du Alkaia gakoak: «Gure koadroan faborito nagusia Ruben Beloki da, dudarik gabe, gauregungo txapelduna da eta nire ustez, bere adinagatik eta kalidarengatik, momenturik onenean dago. Berari irabaztea zaila da, baina niretzat inportantea da papera ona egitea, aurten behere xamartikan hasten naiz eta lehendabiziko partidua irabazten badut, bigarrena Jokin Errastiren kontra izanen dut, hau da,

maila haundiko pilotaria eta ez da bate-re erraxa. Ni berri z

HURBILETIK.....

1 Asier Olaizola 1975eko maiatzaren 5ean jaio zen Goizuetan.

2 1996ko apirilaren 21ean egin zuen debuta profesional mailan Altirekin. Geroztik, Asperekin fitxatu eta aurten Espainiako txapela irabazi du, Elkororekin batera

3 Pilotaz aparte, bere afiziorik haundiena ehizia da. «Ehizia baino gehiago, ehizizakurrak».



ere hor goitian sartzearekin konformatuko nintzateke eta hor egonez gero beti izaten duzu zerbait egiteko aukera».

Asperen eskuz eskuko txapelketa beranduago hasiko da. Asier Olaizolak iaz ez zuen jokaterik izan, lehengo enpresak ez baitzion utzi. Aurten, beraz, gogo haundiekin ekinen dio lehiari goizuetarrak. «Momentuz moral eta joku haundiarekin nago. Iaz ez nuen jokaterik izan eta ilusio haundia daukat jokatzeke. Orain, behetik hasi beharko dut eta partiduz partidu joatea, ahal diren gehienak irabaztea eta ahalik eta goitien ailegatzea da nire helburua, nahiz eta oso zaila izanen den».

Inaxio Errandonea eta Asier Olaizolak, badute bertze parekotasunik. Errandonea II eta Olaizola II izena daramaten anaiak ari dira pilotan. Javier Errandoneak ez du eskuz banakakoa jokatuko, baina Aimar Olaizolak Aspeko txapelketa nagusian jokatuko du, bigarren mailakoaren finalera ailegatu ondotik. Asierrek dioenez, «baliteke anaia eta biok elkarren kontra jokatzea, polita izanen litzateke ikusteko. Apostua zeinen alde egin? hori ez dakit...». ■

AURREZ AURRE

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Apirilaren 9an** Aní-mese Martínez, Kasino ostatuan, arratseko 10,30etan.

► **Apirilaren 16an**

Wichita Kasino ostatuan, arratseko 10,30etan.

BIDEOA

SENPERE

► **Apirilaren 9an**

Bideo emanaldia Oxtikenean; arratseko 8etan; Gaia: "Euskal Herria". Ondoren poteoa egingen da Senperen barna, eta gava Oxtikenean bukatuko da.

ZOKETA

ELIZONDO

► **Zenbaki sarituak**

Elizondoko Lanbide Eskolako 2. BAGEko ikasbidaia zozketako zenbaki saridunak hauek izan dira: Minikatea: 3.740; Urdaiazpikoa: 1.889. Eskolan bertan bildu beharko dira sariak.

IKASTAROAK

MALERREKA

► **Loregintza**

Izen emateko epea apirilaren 15a baino lehen. Ikus 19. orrialdea.

ANTZERKIA

BERA

► **Apirilaren 18an**

"Caricias" antzezlan eskainiko du Lamixine Antzerki Taldeak Bera-ko Kultur Etxean. Sarra: 500 pezeta. Elizondon ere egunotan estreinatuko omen dute obra, bainan zehazki zein egunetan ez dugu ikasterik izan.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



Berriemaileak behar dira Malerrekan

Sunbillan Jaione Otxandorena izanen da aurkezlea

Ortziralero arratseko 9etan emititzen den Herriz-herri saioan Bortzirietako berriak jaso dira orain arte. Hemen-dik aitzinera, ordea, Malerrekakoak ere bildu nahi dira programa horretan bertan. Horretarako, Doneztebe, Ituren, Elgorriaga, Zubieta, Oitz, Donamaria, Urrotz, Legasa, NARBarte eta Oierregiko jendea behar da aurkezpenak edota elkarrizketak egiteko.

Interesa baldin baduzu, deitu 948 631 188 telefonora.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.300 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 118 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 65 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa520
2.koa490
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 27.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Ez zaigu ahaztu»
Alberto BARANDIARAN
SUSA

Altsasuko kazetari hau joan den urtean izan zen Argentinan, Euskaldunon Egunkariarako artikulatu batzuk idazteko aitzakian. Gaia, 70. hamarkadan alderdi haietan sofritu zuten diktadura militarren errepresioa da, 30.000 pertsona desagertarazi zituen errepresioa.

Euskal jatorriko desagertuen hariari tiraka ibili zen Alberto, eta tortura zentruetatik bizirik atera

diren batzuekin elkarrizketak izan zituen haietaz galdetzeko. Pentsa daitekenez, lekukotasun lazarriak biltzen dira kazetari kutsuko eleberri honetan. Liburu gogorra da ezinbertzean, gaia berez arront gogorra delako. Dena den, gaur egungo Argentinaren erretratua ere egiten saiatu da; futbolak bixten duen pasioa, matea hartzearen erritua... horrek goxatzen du pixka bat.

“Ez pentsatu... erosi!”

Salmenta kopuruari dagokionean hipermerkatuak merkatuko izar bihurtu dira azken urteotan. Beren irabaziak %15etik goiti hazitzen dira urtero-urtero.

Baina zein da hipermerkatuen sekretua? Aski errexa: ordutegi zabalak, eskeintza bereziak, gune berezik atera gabe erosteko aukera edota publizitatea akaso. Dena den, garbi dago “ez pentsatu, erosi” lelopean hipermerkatuek hainbat trikimailu erabiltzen dutela. Ekologistek behin eta berriz salatu dute kontsumo gorrian murgilduarazteko egiten diren ahaleginak.

Psikologoaren ustez, pentsatzen genuena baino bi aldiz gehiago gastatzen dugu, batzaz beste. Horretarako, argiak, koloreak, eskeintza bereziak, produktuen kokapena, musika eta gisako trikimailuak erabiltzen dituzte.

HIPERMERKATUAN EROSTEKO 10 AHOAKU

Hori ez gertatzeko, hona hipermerkatuan erosteko kontseilu batzuk:

1.- Kasu eskeintza bere-



Hipermerkatuetan dena dago diseinatua gehiago eros dezagun: koloreak, musika, apalen altuera, eskaintza bereziak...

zietekin! Hipermerkatura johan baino lehenago nahi duzunarekin zerrenda bat prestatzea izaten da publizitatearen eraginari ekiditeko modurik egokiena.

2.- Kaduzidate data begiratu. Eskeintza berezietako janariak kadukatu hurren egoten dira maiz, bereziki denboraldiko produktuak: turroiak, izozkiak...

3.- Janarien etiketak konprobatu.

Pentsatzen genuena baino bi aldiz gehiago gastatzen dugu, batzaz bertze, hipermerkatuetan.

4.- Janari izoztuek ez dute horma xuririk izan behar, ezta itsekiak egon behar ere.

5.- Janari izoztuak hondarreak erosi, urtutzen dena ez baita berriz hormatu behar.

6.- Arropari dagokionez, bertan jauntzi eta etiketak konprobatu.

7.- Garantiak eskatu.

8.- Bapateko itxurarekin ez fidatu eta behar ez duzuna garestia suertatzen ahal dela gogoan izan.

9.- Faktura zuzena den edo ez konprobatu.

10.- Hipermerkatuko enkargatuarekin ez baduzu zure aferak konpontzen erreklamazio orriak eskatu eta kontsumitzaileen informazioarako bulegora jo ezazu.

IRATXE KONTSUM. ELK.

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► Apirilaren 11n

Okabe (Mendiriz-mendi). Baztango Mendigoizaleak.

► Apirilaren 18an

ERLO (Mendiriz-mendi). Baztango Mendigoizaleak.

BERA

► Bera-Baigorri

Apirilaren 25ean eginen da Nafarroaren Eguna. Larun Mendi Taldea bezperan abiatuko da Beratik oinez, eta Amaiurren pasatuko dute larunbat gava. Igande eguerdirako Baigorri izanen dira. Apuntatzeko: 948 630 052. Deitu apirilaren 22a baino lehen.

ODOL EMATEAK

LESAKA

► Apirilaren 14an

Goizean, osasun-etxe parean.

► Apirilaren 15ean

Goizean, osasun-etxe parean.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

► Apirilaren 5etik

11ra Eixalar, Narbarre, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Apirilaren 12tik

18ra Arantzeta, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Apirilaren 19tik

25era Igantzi, Ituren, Elizondo (Lezaun), Leizeta eta Goizueta.

DISKAK



«Klub ska»

SKALARIAK

GOR

Iruñeako talde honek bere bigarren diska jarri du merkatuan lehenengoa plazaratu zuenetik urte terdi joan denean. Talde hau “O, neure herri” izeneko abestiak 97ko udan egin zuen ezagun Euskal Herrian. Orduz geroztik hainbat eta hainbat jaialditan parte hartu dute, eta baita Herri Urrats, Nafarroa Oinez eta gisako egunetan ere. “Klub ska” honetan, ska eta

skaren inguruko doinuek dute tokia. Abesti gehiena erdaraz abesten dituzte, pare bat kerduta. Aurtengo udan seguraski bi abesti hauetako bat behin eta berriz adituko dugu ostatu eta txoznetan: “Naturarekin bat” ska dantzagarria. Bertzalde, reggae eta soul ukituak soma daitezke haize tresnak nagusi diren diska honetako kantu batzutan.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015923 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZA erdialdean bi pisu eta Amazabal goian bajera salgai daukat.
13, 12 eta 2 milioi pezeta.

☎ 649 476 615 • 948 510 346

ADOS

BERA.

- Pisu batzuk salgai.

☎ 607 978 656
☎ 948 451 841



BASERRIA SALGAI
ETXALAR: Baserrirak salgai, etxe inguruko lur guzietan (soro eta zuhaitzi). Prezioaz solastuko gara.
☎ 948635060

BERA. Pisu eta bajera salgai Pio Baroja karrikan. ☎ 948 635 137.

BERA. Pisu salgai Age-rra auzoan. 3 gela, egongela, komuna eta sukaldea. ☎ 948 861 542.

LESAKA. Pisu salgai, Bittiria 2. pisuan. ☎ 948 637 931.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
- Etxalarren etxe bat egiteko lur-eremua erosi nahi da.

☎ 607 978 656 • 948 451 841

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA

Denda salgai
Herri erdi-erdian, martxan dagoen jamaridenda traspasatzen da. 70 m².
Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

BERA. Bidasoa karrikan 250 m²ko bajera salgai. 8 milioi pezeta. ☎ 948 630 589.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LEGASA. Opoka ostatua errentan ematen da. Gai- nean etxebizitza dauka. ☎ 948 450 544.

BERA. 80 m²ko lokal komertziala errentan ematen dut, San Esteban 37.ean. Dena prest negozioa edo bulegoajartzeko ☎ 948 630 305.

GARAJEAK/LOKALAK

110 ERRENTAN HARTU

LEITZA. Autoarentzat garaje plaza hartuko nuke hileko 4.000 pezeta ordainduz (IPCaren arabera igokolizateko urtero errenta). Herrian bertan (P. Arrazola eta Amazabalen ezik), erditik hurbil. ☎ 948510 183 (Joxe).

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

LANA

302 ESKAINTZAK

Taxi plaza bat traspasatzen da Beran. ☎ 948 630 629.

Galdaragintza, soldadura, muntaia eta planoak interpretatzen dakien langilea behar dugu Bera eta Oronoz arteko zonaldean. ☎ 948 637 411.

Esperientziadun **emakume edo neska** bat behar dugu ostatuan lan egiteko. ☎ 948 450 491.

Zapatak josteko pertsonak behar ditugu Baztan-Malerreka inguruan. ☎ 948 580 093 (eguerdiko 12etatik 2etara).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Nissan Sunny salgai. 16 V, 59.000 km eta NA-AK matrikula. Egoera onean. ☎ 948 630 482.

Opel Corsa salgai, NA-O. ☎ 948 630 408.

Opel Corsa salgai, SS-AJ. 150.000 Pta. ☎ 948 630 869.

Renault 11 GTL salgai. Egoera onean. Ekonomikoa. ☎ 948 631 165.

Vespa 125 c.c. salgai. Egoera oso onean. 130.000 Pta. ☎ 948 610 686.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Paumak (pabo errealak) salgai. ☎ 948 630 140.

Hiru urteko **aharia** salgai lgantzin. ☎ 948 637 343.

SUNBILLA

IGERILEKUA
esleitzeko eskaintzak

AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:
APIRILAREN 22A

Honen bidez zera jakinarazten da:

Datorren apirilaren 22an (eguerdiko hamabietan) pizinarako eskaintzak aurkezteko jarritako epea bukatuko dela.

Konkurtoaren baldintzak idazkaritzan ikusten ahal dira lan egunetan.

Sunbilla, 1999ko martxoaren 22an,
ALKATEA,
J.I. Mariezkurrena

DESKONTUAK

TAILERRAK

SEAT DATUGELAY

SEAT ZERBITZU OFIZIALA
Baztan-Bortzirriak-Malerreka

Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 02 25

- ▶ %10 merkeago bateriak eta amortiguadoreak aldatzea

SANSIÑENA GARAJEA

Zerbitzu Ofiziala

Santiago, 37 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 04 06

- ▶ %10 merkeago olio aldatzea

ARROPAK



BAKERO eta SPORT ARROPA

Karrika Nagusia, 7
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 17 04

- ▶ %10 merkeago merkealdietan



55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN



TTIPI TXARTELArekin irabazten ateriko zara

TTIPI TXARTELA baldin baduzu, ez zara galtzen ateriko. Ateri kontuak. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu. Deskontuak, zozketak, opariak... Eskatu zurea lehenbailehen!

ESKATU INFORMAZIOA

948 63 11 88

Lamixine BAT



ANTZERKIA IKUSTERA TTIPI TXARTELAAREKIN

Apirilaren 18an, igande arratsaldean, Lamixine antzerki taldeak *Caricias* antzeztanaren bigarren estreinaldia eskainiko du Berako Kultur Etxean. Elizondon ere bertze emanaldi bat eginen dute laster, baina oraindik data zehaztu gabea dago. *Caricias* Sergi Belbel idazle katalandarraren obra batean oinarritzen da, eta pertsonaien elkarrizketa gordinak dira obraren ardatz nagusia.

10 sarreraren zozketa eginen da TTIPI TXARTELA dutenen artean. Horietako bat nahi baduzu, deitu apirilaren 16a baino lehen.

DESKONTUAK

ESTETIKA



LURRINDENDA ESTETIKA

Beheko Plaza, 8
LESACA
Tfnoa.: 948 637791

- ▶ %10 merkeago 2.000 Pta. baino gehiagoko erosketa baldin bada

LENTZERIA

MAITE

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 45 24 36

- ▶ %10 merkeago 5.000 Pta. baino gehiagoko erosketa baldin bada

OPTIKAK

ARGIBEL OPTIKA

Santiago, 62 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 13 91

- ▶ %10 merkeago lente graduatuetan

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera **35 Ptako 15 seilu** igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Zorionak **Bautistari** (Aries) bere lagun mendizaleen partetik. Apirilaren 18an beteko ditu urteak.



Nerea Leitzea beratarak apirilaren 3an 9 urte bete ditu. Zorionak!



Mikel Goienetxe beratarak 9 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak atxa, ama, arreba Aintzane eta bi amatxien partetik.



Birginia Mari-ekurrena leitzarrak 14 urte bete ditu apirilaren 2an. Zorionak lagunen partetik, bereziki Ainhoaren partetik.



Berako **Soniak** 22 urte bete ditu apirilaren 1ean. Mende laurdenera hurbiltzen ari zaren arren, ez zaizu askorik nabari. Zorionak!



Mikel Oartzabal lesakarrak 17 urte bete ditu apirilaren 1ean. Zorionak familiaren partetik.



Ane Berde Arretxea narbartearrak 9 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Eneritz eta Izaskun Rekartek apirilaren 8 eta 16an 7 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Txarok apirilaren 5ean 38 urte bete ditu. Zorionak Jabier, Dabid, Iban eta Estibalitzen partetik. Muxu aunitz.



Dabidek apirilaren 24an 18 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, Iban eta Estibalitzen partetik.



Gloria Zelaiaeta Martikorena beratarak urteak beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak M^e Loli.



Ixiar Andueza Lanz beratarak urteak beteko ditu apirilaren 6an. Zorionak ama eta Mariaren partetik.



Amaia Zapi beratarak apirilaren 19an urteak beteko ditu. Zorionak lagunen partetik.



Daniel Pio Garcia doneztebarrak apirilaren 6an 5 urte bete ditu. Zorionak gurasoen, Eloy eta Eratsungo familiaren partetik.



Igtziko **Itxasori**: Zorionak apirilaren 3an urteak bete dituelako, koadrilaren partetik.



Ainhoa Retegik apirilaren 3an 11 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Leitzako **Birjiniaak** apirilaren 2an bete dituzte urteak. Zorionak bere familiaren partetik.



Ander Oskoz Gago doneztebarrak apirilaren 12an 5 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Dolores Mitxelena goizuetarrak 87 urte beteko ditu martxoaren 29an. Zorionak familia guziaren partetik. Aupa amona!



Rosa Solanak urteak beteko ditu apirilaren 5ean. Zorionak Ros!



Elizondoko **Ana Telletxeak** apirilaren 18an urteak beteko ditu. Bere senarraren partetik muxu haundi bat.



Beñat eta Luciano Erkiziak urteak beteko dituzte apirilaren 27an eta 3an. Zorionak etxekoan partetik.



Begoña Tapia Alzuguren beratarak 6 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Berako **Aritz Perezek** apirilaren 3an urteak bete ditu. Zorionak Arantzako bi lagun partetik.



Arantzako **Itsaso Bereauk** apirilaren 5ean 17 urte bete ditu. Zorionak eta besarkada haundi bat lagun baten partetik, preziosa!



Miren Lasaga Goienetxe exkalartarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 11n. zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Maria eta Miguel Elizalde Lago lesakarrak apirilaren 29an 8 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat beren familia guziaren partetik.



Canariok apirilaren 3an bete dituzte urteak. Zorionak familiaren partetik.

MOTORRA

502 TAILERRAK

GANIX
Tailerrak

Iturlandeta, 9 • 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



BERABI tailerrak

948 631 445•BERA

Nissan kamioiak eta
Pick-up berriak

ETORRI ETA IKUSI!

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTBE

Bigarren eskuko kotxeak:
VW Golf GTI eta Polo,
R.Express D, Super 5, R-11,
Corsa GSI, Citroen AX.
Suzukiak: Vitara eta
Samurai aukeran.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Urrezko eskumuturrekoa
galdu dut Beran. 948 631
168.

Martxoaren 25ean Berako polikiroldegiko aldageletan neskendako **erloju berde bat** galdu zen, "Swatch" markakoa. 948 630 768.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Yamaha bateria beltza salgai. Gutti erabilia. 689 042 671.

Pearl bateria salgai. Egoera onean. 948 630 665.

Gimnasia-bankua, gutti erabilia eta bere pesekin; **masaia-ohatila** (160x60 cm); marrazki edo delineaziorako burnizko **mahaia** (90x70 cm); hagitx gutti erabiliko **saxofoia** eta **berogailu japoniarra** (ia berria) salgai. 948 387 077 (14etatik 17etara edo gauean).

HARREMANAK

801 AGURRAK

Argibelgo jaunarentzat: zorionak! Martxoaren 25ean ongi pasatu. "Letxuga egosia tomatearekin" afari hori zintzilik gelditzen da. Betaurreko gorridunaren partetik.

Erratzuko **Marruxketari:** esperoan nago gau hartakoa errepikatzeko. Maite zaitut. Neska baten partetik.

Arraiozko **Aitziber Mindedgiari:** apirilaren 4an urteak bete dituelako, zorionak etxekoan partetik.

Junkal Ortegok urteak beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak Eneritz, Ainhoa eta Manoloren partetik.

Zorionak "A la secre de Tabora".

Tomás Otxoteko lesakarra izandakoari aunitz urtez, apirilaren 7an. Bere emazte, alaba, T. eta O. ren partetik.

Zigako **Xanti Ibarrari:** zorionak martxoaren 30ean 16 urte bete dituelako. Nekane, Maite eta Iñakiren partetik. Ea noizko txanpain botil hori... aupa rubio!

Kalitatea prezio egokian



ERAKUSKETA
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637034
LESAKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUAKIAK...

Osasungintzako Profesionalak

Jorge Sopena Colombero

**hortz
klinika**

© 948 630647
Itzea 1, 1. • **BERA**

**Begoña
Mitxelena
Sagastibeltza**

KIROMASAJISTA

Elizgibela, 6 • **DONEZTEBE**
© 948 45 07 43

**MAGNETISTA
NATUROPATA**

IKUSMENA BERRESKURATZEA

GIHARRE ARAZOAK

OPERAZIO ONDORIOETATIK
INDARTZEKO TRATAMENDUAK

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4. **IRUN**

BELARRA

Herbodietetika – Janaridenda

© 948 510192 • Elbarren, 35 • **LEITZA**

Terapien Zentrua



Masajeak
Akupuntura
Homeopatia
Naturopatia

Gorosabel 36 - I.D. • © 943654255-943 671635 • **TOLOSA**

Jose Luis Bihotza
IRURITA RUBIO
HORTZ KLINIKA

DONEZTEBE

Rosa Seminarioa, 19
948 450 267

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDÉ Doktorea
ODONTOLOGOA

ORDUTEGIA

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban, 21 behea • © 948 631 057 • **BERA**



focus



Zuk zerbait gehiago bilatzen duzulako

“TDDI” motor berria: turbodiesel injekzio zuzena

Zalain Motor

Ubelaldea / Tel.: 948 631 157



Bidasoa 45-60

BERA

Tfnoa: 948 630537

NEURRIRA
EGINDAKO MOBLEAK

